

**GATEPACeko Ipar Taldearen proiektuak**

---

*Proyectos del Grupo Norte del GATEPAC*

**gatvmpac**  
**G.N.**



**GATEPACeko Ipar Taldearen proiektuak**  
*Proyectos del Grupo Norte del GATEPAC*

Liburu hau UPV/EHUko Arkitektura Goi Eskola Teknikoaren eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren arteko hitzarmenari esker argitaratua da / *Este libro ha sido publicado gracias a un convenio entre la Escuela Técnica Superior de Arquitectura (UPV/EHU) y el Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes del Gobierno Vasco.*

## KREDITUAK / CRÉDITOS

Editorea / *Editor*: Lauren Etxepare Igiñiz

Egileak / *Autores*:

- Azcona Uribe, Leire
- Etxepare Igiñiz, Lauren
- Lizundia Uranga, Íñigo
- Martín Talaverano, Rafael
- Sagarna Aranburu, Maialen
- Uranga Santamaría, Eneko Jokin

Diseinua eta Maketazioa / *Diseño y maquetación*: Rafael Martín Talaverano

Ikasle laguntzaileak / *Estudiantes colaboradores*: Amaiur Oiza Zapata, Gorka Perea San José

ISBN: 978-84-09-57964-8

Lege Gordailua / *Depósito Legal*: LG D 3-2024





# Aurkibidea

## Índice

<b>1) GATEPACeko Ipar Taldea (1930-1937). Testuinguru bat arkitektura-proiektuen bilduma batentzat</b> (Lauren Etxepare) .....	4
<b>2) <i>El Grupo Norte del GATEPAC (1930-1937). Un marco para una recopilación de proyectos arquitectónicos</i></b> (Lauren Etxepare) .....	10
<b>3) Hormigoi armatuaren erabilera XX. mendeko abangoardiako arkitekturan</b> (Maialen Sagarna) .....	16
<b>4) <i>El Movimiento Moderno: una nueva estética asociada a los nuevos sistemas constructivos</i></b> (Iñigo Lizundia, Eneko Jokin Uranga) .....	21
<b>5) <i>Teoría y práctica de la colectividad en las viviendas del Grupo Norte</i></b> (Leire Azcona) .....	26
<b>6) Proiektuen fitxak / Fichas de los proyectos</b> (Rafael Martín) .....	32
- 1930 urtea / <i>año</i> .....	33
- 1931 urtea / <i>año</i> .....	36
- 1932 urtea / <i>año</i> .....	40
- 1933 urtea / <i>año</i> .....	53
- 1934 urtea / <i>año</i> .....	66
- 1935 urtea / <i>año</i> .....	71
- 1936 urtea / <i>año</i> .....	83
- 1937 urtea / <i>año</i> .....	88
- 1938 urtea / <i>año</i> .....	89
- Proiektuen zerrenda / <i>Lista de proyectos</i> .....	92
- Irudien egileak eta jatorria / <i>Fuente y autoría de las figuras</i> .....	95

# 1 GATEPACeko Ipar Taldea (1930-1937). Testuinguru bat arkitektura-proiektuen bilduma batentzat

Lauren Etxepare

Zazpi urte besterik iraun ez bazuen ere (1930-1937), GATEPAC erakundeak ekarritako berrikuntzak eta erakutsitako ausardiak goitik behera haizeberri zuten arkitekturaren panorama. Izan ere, sekula ez zitzaion Espainia abangoardiako arkitekturaren arrastoari hurbilagoetik jarraikiko nola erakunde hark iraun zuen bitartean. Hortik GATEPACek Frantziako eta Alemaniako arkitekto garaikideen artean pizturiko miresmena, uste izan baitzuten aspaldi zekarren atzerapena leheneratzeko bidean zela herrialdea. Astindu ederra eman zion erakunde hark arkitekturari, hankaz gora jarrita funtsezko zenbait kontzepturen arteko erlazioa: forma eta funtzioa, artea eta teknologia, estiloa eta abstrakzioa.

GATEPAC erakundea ez zen, noski, hutsetik sortu. Eragile jakin zenbaiten bultzadaz mamituriko gizataldea izan zen lehenbizi, eta testuinguru berezi batean zerturiko elkarrekin gero. Iturburuak anitz dira; artearen eremukoak batzuk eta politikoak besteak. Alde batera, 1929ko esposizio handien aurkako erreakzio bizia zen. Bi esposiziook, Bartzelonako Nazioartekoa eta Sevillako Iberoamerikarra, estilo historikoekin laketuriko arkitektura melenga eta autokonplazentziazkoa baliatu zuten; pastel baten tankerako arkitektura, José Manuel AIZPURUAK zioen bezala (1930). Harekin guztiarekin apurtzeko irrika aspaldi piztua zen Bartzelonako Arkitektura eskolako ikasleen artean, eta baita Madrilen ikasitako zenbaiten artean ere, Aizpurua, Joaquín Labaien eta Luis Vallejo tartean zirela.

*Congrès International d'Architecture Moderne* (CIAM) biltzarren eragina ere bazen, noski, eta haietan landuriko gaiak Espainiako testuingurura ekartzeko gogoak: eraikuntzaren industrializazioa, gutxieneko etxebizitza eta hiria antolatze modu berriak. Azken finean, jaiotzearen erakundea CIRPACen Espainiako delegazioa izatekoa zen (*Comité International pour la Résolution des Problèmes de l'Architecture Contemporaine*), harekin elkarlanean jarduteko eta bilkura haietan adosturikoak tokian aplikatzeko.

Bestalde, Donostiako Itunaz gero (1930), begi-

bistakoa zen aldaketa politikoa zetorrela, eta ez nolana hiko; Primo de Riveraren diktadura azkenetan zen, eta monarkia bera ere, kili-kolo. Erregimen mudantza usnatzen zen, eta Europan eta Ipar Amerikan arkitektura berri baten alde pizturiko inizatiba asoziazionista zenbaiti jarraiki, GATEPACekoak ere aldaketa giroaz baliatu ziren arkitektura garaikidearen aldeko lobbyaren papera jokatzeko.

Bada, aurrekarien artean, talde-izaerako inizatiba zenbait ere. Ekar dezagun gogora Josep Lluís Sertek, Josep Torres Clavék eta enparauek 1929an sortua: *Grup Català d'Arquitectes i Tècnics per a la Solució dels Problemes de l'Arquitectura Contemporània* (GCATSPAC), eta baita honen gerizpean sorturiko ADLAN taldea ere —Amics de l'Art Nou—. Katalanengatik balitz, egia esan, beren kabuz hartuko zuten parte CIRPAC bilkuretan, euren izenean eta Espainiarekin lotuta joan behar izan gabe. Alabaina, delegazio batek parte hartuko bazuen, estatu baten ordezkari gisa baino ez zuen egiten ahal, eta indartsu bazetorren ere, Katalunia ez zen estatu subiranoa. Horrek eraman zituen katalanak Espainian sortze-bidean ziren taldeekin bat egitera eta estatu mailan CIRPACen homologoa izango zen erakundearen sorreran parte hartzera. Aterabide moduko bat besterik ez zen haientzat.

## GATEPAC eta Bigarren Errepublika

Erakundearen bizialdia eta Espainiako Bigarren Errepublikaren arteko lotura ez zaio soilik denborabitarte bera bizi izanari zor; elkarri loturiko fenomenoak dira biak, izan ere. Hastapen datak gogora ditzagun lehenik eta behin: 1930eko urriaren hondarrean sortu zen GATEPAC, eta 1931ko apirilaren 14an aldarrikatu Bigarren Errepublika: urte erdi eskaseko aldea. Akabua ere, garai bertsukoa dute, nahiz zailxeagoa izan data zehaztea, zuzenean baitago lotua Gerra Zibilean garaile irten zirenek lurralde bat edo bestea menpean hartu zuten garaiarekin: 1936ko iraila, Gipuzkoako ekialdeaz ari bagara; 1937ko ekaina, Bilbo izatera, edota 1939ko urtarrila,

Bartzelonaren kasuan. Ez da gerrak zeharka eraginda iritsi zenik GATEPACen amaiera; aitzitik, bete-betean jo zituen taldea eta are taldekideak ere, hormaren kontra fusilatuta edota frontean hil baitziren kide zenbait.

Hasiera eta amaiera ez ezik, baina, GATEPACeko euskal taldearen ibilbidea eta bere baitako aroak ere bat datoz erregimen errepublikanoak bizi izan zituen aldi eta garaiekin, euren barne zikloak lotuta baleude bezala. Izan ere, Errepublikako lehen biurtekoa amaitu eta laster, 1933ko hauteskunde orokorren osteko bigarren biurtekoa hasi berri, bigarren aldiz eratu zen Ipar Taldea. Hala nola 1930ean, erakundea jaio zelarik, hiru kidek besterik osatzen ez baitzuten, 1933ko hondarrean beste bederatzi kide bereganatu zituen taldeak. Hirugarren eta azken aldi bat izan zuen Bigarren Errepublikak, noski, urte erdi eskas besterik iraun ez bazuen ere. 1936ko Gorteetarako hauteskundeetako Fronte Popularraren garaipenarekin hasi eta urte bereko uztailaren 18ko Altxamendu Nazionalak ekarritako gerrarekin amaitu zen. Aurretik nahasia bazetorren, erabat tenkatuko zen giro politikoa tarte hartan; zer esanik ez gerra piztutakoan. GATEPACeko euskal taldea, José Manuel Aizpurua militantzia politikoari guztiz emana zegoelarik, apenas izan zuen talde gisako jarduerarik, nahiz kide mendebaldarrek, Bizkaiak luzexego eutsi baitzion matxinatuen erasoari, aukerarik izan esku artean zeuzkaten lanak amaitzeko edota Eusko Jaurilaritza sortu berriaren zerbitzura jarduteko.

### **Ipar Taldearen sorrera, GATEPACen baitan (1930)**

Fernando García Mercadalea izan zen sortze-batzarra deitzeko erabakia, Josep Lluís Serten laguntzarekin beti ere. Gonbit-gutunak zirela medio deitu zituzten hango eta hemengo arkitektoak erakundea sortzeko batzarrerara. 1930eko urriaren 26an izan zen, Zaragozako *Gran Hotel*-en. Taldeari *Grupo de Artistas y Técnicos Españoles para el Progreso de la Arquitectura Contemporánea* izena jarri zioten: GATEPAC —aurreko urtean Bartzelonan sorturiko taldearen izenak inspiratuta, bistan da—. Bultzatzaileek, arkitektoak ez ezik, eraikuntzaren sektoreko industrialariak eta teknikariak erakartzea zuten asmo (MUÑOZ 2009: 245-247). Izan ere, xedea ez zen soilik arkitektura berria egitea; material egokiak bilatzea eta sistema berriak asmatzea ere

bazen. Haatik, arkitektoak baino ez ziren azaldu Zaragozako bilkurara. Horietatik hamar katalanak ziren —Cristobal Alzamora, Pere Armengou, Ricardo Churruga, Sixte Illescas, Germán Rodríguez Arias, Josep Lluís Sert, Manuel Subiño eta Josep Torres Clavé—; hiru, Madriletik heldutakoak —Fernando García Mercadal, Víctor Calvo Martínez de Azcoitia eta Felipe López Delgado—, eta bi besterik ez Euskal Herritik: Joaquín Labaien eta Luis Vallejo—. Halaxe jasoko zuen mekanografiaturiko sorrera-aktak (Kataluniako arkitektoen elkargoan aurkitu ahal da: COAC Arxiu històric, C 1/9). Laster, baina, batuko zitzaizkien beste batzuk, tartean José Manuel Aizpurua —geroago erantsiko zuen bere sinadura aktaren amaieran—.

Ez zen beste lurraldetako ordezkariarik izan. Andaluzian, esate baterako, ez zegoen Arkitektura Eskolarik, eta ez zen arkitektura aitzinarazteko nahikoa masa kritikorik ez gogorik, 1929ko Esposizio Iberoamerikarrak erakutsi bezala. Kanariar uharteetan, bestalde, Eduardo Westerdhalek Santa Cruz de Tenerifenen abiatutako gaceta de arte (1932) aldizkari nazioarteko eta sozialistak Le Corbusieren eta Alberto Sartorisen artikulua zenbait argitaratu izanak aditzera ematen du arkitektura modernoarekiko grina bazela bertan, nahiz eta ezein organizazio gisa mamitu ez (URRUTIA 1997: 264).

Hala bada, hiru taldetan antolaturik jaio zen GATEPAC: Ekialde Taldea —Kataluniakoa, alegia—, Erdialde Taldea —Madrilgoa— eta Ipar Taldea —Euskal Herrikoa—. Izendapenok, bistan da, Fernando García Mercadalek jarriak ziren, harentzat Madril baitzen erakundearen zentroa, Espainiako hiriburua zen bezalaxe. Katalanek arrotz egin zioten hasieratik bertatik nomenklatura hari, bistako arrazoiak tarteko. Deiturak-deitura, eta arkitektura lengoaia berriarekiko atxikimenduz harago, denek hartu zuten gizarte-garapenarekin konpromisoa, hiriaren eta etxebizitzaren arloko alderdi guztiak aintzat hartuz: bizigarritasun-baldintzen hobekuntza, hezkuntza eta osasun unibertsala.

GATEPACeko kideentzat berebizikoak izango ziren arkitektura-lehiaketak, mandatu profesionalaren bide ohikoak baino aukera handiagoak ematen baitzituzten. Gainera, gero eta ugariagoak ziren arkitektura-lehiaketak garaiko Espainian, haiek

baliatzen baitzuten administrazioak proiektuak zein arkitektori esleitu erabakitzeko. Lehiaketak, bestetik, arkitektura-lengoaia berria saiatzeko abagune bilakatu ziren; erakustoki ezin hobeak, bai, modernitatearen dohainak gorestek eta saio berritzaileak proposatzeko. Hala deitu zituzten, Espainiaren modernizazio-prozesu suspertzeko xedez, hamaika lehiaketa han eta hemen, hornikuntza eta zuzkidura-behar berrientzako konponbiderik egokienak bilatzeko. Ipar Taldeko kideak hainbat lehiaketatan saiatu ziren. Taldean edo bikoteka askotan, bakarka inoiz ere. Kide guztietan norbait nabarmentzekotan, aipa ditzagun José Manuel Aizpurua eta Joaquín Labaien, udal mailako hainbat deialditan aurkeztu baitzituzten beren proiektuak, bai eta Espainia mailakoetan ere, hala Arkitektura Sari Nazionalen nola ministerioek deiturikoetan.

### **Ipar Taldearen (bir)fundazioa (1934)**

1933. urteak aurrera egin ahala, tenkatzera egingo zuen Kataluniako taldearen eta GATEPACeko gainerako adarren arteko erlazioak. Urte hartan erabaki zuen Kataluniako taldeak Madrilgoa bertan behera uztea eta Fernando García Mercadalekin bakarrik jarraitzea, hura izendatuta Madrilgo ordezkari bakar. Ordura arte Erdialdeko Taldeko kide izandakoek taldetik aparte jardungo ziren harrez gero. García Mercadalek gogotsu jarraituko zuen, hala ere, eta baita Aníbal Álvarezek eta Martínez Chumillasek ere, erakundetik kanpo bazen ere.

Ipar Taldea ere estu hartu zuten katalanek. Berri gutxi iristen zen Donostiatik, eta berandu erantzuten zieten Bartzelonatik egindako eskaerei. Hainbat dira AC aldizkariaren erredakziotik Ipar Taldearen buruari idatziriko gutunak, hitzemandako plano, argazki edo idatziak galdetuz, zenbait bazkide kuota ordaindu gabe zeudela gogoratuz, edota besterik gabe, berri eske; Torres Clavék Aizpuruari idatzitako hau, adibidez: “Aizpurua, adiskide: aspaldi ez dugula zuen berririk, ez zineten ba analfabeto bihurtuko, ala? Nola doa Ipar Taldea? Ez al duzue garaia, taldeak kide berriak egin dituelarik, ausartu eta ekimen berriekin menturatzeko?” (1933ko urriaren 18ko gutuna, COAC Arxiu històric, C12/73).

Torres Clavék bazuen, nonbait, José Manuel Aizpuruak arkitekto gehiago erakartzeko egindako

ahaleginen berri. Izan ere, gogotik saiatu zen Aizpurua GATEPACeko Ipar Taldea zabaltzen, zela sorreraz gero lankide izandako arkitekto zenbaiten partaidetza bermatzen, zela menbrua berriak erakartzen. 1933ko abenduaren 28an Josep Torres Clavéri igorritako gutunean, euskal adarraren asmoen berri ematen zion: “proiektu handiak ditugu esku artean, eta ilusio handiz ekingo diegu. Landa-eskolak, lanbide-eskolak eta Bigarren Hezkuntzako Institutuak proiektatuko ditugu Euskadi osorako. Horien ostetik hasiko gara hiri nagusienentzako zabalgunek eta urbanizazio-lanak proiektatzeari”.

Nolanahi ere, donostiarra pozik zegoen, zeren eta lortu baitzuen beste bederatzik arkitekto Ipar Taldearekin bat egitea, eta horrek adoretuta, Prim kalean lokal berri bat alokatzea zerabilen gogoan, Bartzelonako egoitzaren modukoa zabaltzeko bertan. Halaxe ematen zion Torres Clavéri euskal adar berria osatuko zuten kideen zerrenda: “Donostiatik Aizpurua, Labaien, Lagarde, Vallet, Ponte, Olazabal, Baroja eta Alberdi; Bilbotik Vallejo, Madariaga eta Bilbao; Iruñetik, Zarranz”. Lehen aldia zen Aizpuruak, Labaienek eta Vallejok Ipar Taldea sortu zutenetik, taldearen osaera zehazki ematen zuena, bere kide guztien berri emanez (SANZ 1986: 136). 1934ko urtarrilaren hiruan erantzun zion Torres Clavék, adeitsu: “Zorionak denoi; taldearen hurrengo batzarrean onartuko ditugu Ipar Taldeko kide berriak” (COAC Arxiu històric, C 12/73). Gutun honek berebiziko garrantzia du. Har dezagun berau, eratzeari eta halakorik ezean, taldearen behin betiko osaera iragartzen eta egiaztatzen duen dokumentutzat.

Sarritan ahantziagatik, birfundazio hura ondoriotsua izan zen, inondik ere, zeren eta bederatzik arkitekto taldearekin bat eginda, kideen kopurua laukoiztu ez ezik, pluraltasuna irabazi zuen taldeak, dela izateko moduei, dela ibilbide akademikoei, adinei edota arkitekturari buruzko ikuspegiei dagokienez.

### **Talde heldugabea**

Fernando García Mercadalek zuzendutako Erdialde Taldea bezala, Ipar Taldea heldutasuna erdietsi gabeko taldea suertatu zen. Bietako batek ere ez zuen Ekialdeko Taldearen bateratasunaren eta sasoiaren mendrena ere erakutsi. Aipa ditzagun, alde batetik,

eta bereziki Espainiako Bigarren Errepublikaren bigarren biurtekoan (1933-1936), kideen artean zeuden gorabehera ideologikoak, Espainiako eta Euskadiko giro politikoa zakartu ahala tenkatzera egingo baitzuten; bigarrenik, gogora dezagun José Manuel Aizpúrua taldeko burua Falange Españolarekin engaiatu berri zela, eta hori gutxi ez eta, 1934an Eskola Eraikinen Zerbitzuko arkitekto izendatu zutela, Hezkuntza ministerioaren baitan. Ez zuen modurik Ipar Taldea behar bezala zuzentzeko.

Ez ziren, bestalde, Euskal Herriko arkitekto moderno guztiak GATEPACeko euskal adararekin engaiatu. Jakina izan zela taldearekin lotu gabeko arkitekto moderno bikainik, are Ipar Taldeko kide zenbaitek baino ibilbide puskaz distiratsua goa egindakorik. Aipa ditzagun, den-denak gogora ekartzeko asmorik gabe bada ere, Pablo Zabalo donostiarra, Florencio Mokoroa tolosarra, Domingo Unanue ordiziarra, Víctor Eusa iruindarra, Jesús Guinea eta José Luis López de Uralde gasteiztarrak, Arturo Sáenz de la Calzada oiondarra edota Pedro Ispizua bermeotarra. Zergatik ez zitzaizkion taldeari atxiki? Esan dezagun, hasteko, talde hura nonbait baldin bazen bere sarea osatzeko gai, Gipuzkoan zela, Donostian finkatua baitzegoen bere aitzindari eta suspertzaila nagusia. Hortik zailtasunak Gipuzkoaz beste lurraldeetako kideak erakartzeko. Izango zen, pentsatzekoa da, lengoaia modernoarekin erabat identifikatzen zen erakunde batekin lotu nahi ez zuenik, edo taldean jardutea gogokoa ez zuenik edota, besterik gabe, ezinikusiren bat tarteko kidetzea errefusatutakorik.

Horrez gain, asko ez izanagatik 1934ko birfundazioaren ondorioz erakarritako kide berriak, ez ote zuten taldeak sortzetik zekarren koherentzia doi bat desitxuratu: hala nola hastapeneko kideak aurreneko CIAM biltzarrekin erabat identifikatuta baitzeuden, 1933ko hondarrean talderatu zirenen artean baziren alde aurretik ibilbide bat eginda zetozen arkitektoak, zeinek bestelako ikuspegiei uko egin gabe helduko baitzioten modernitateari, CIAM biltzarrek agindutakoak betetzeko konpromisotik aske bezala.

Bada, azkenik, Ipar Taldeak jarduera betea eta heldutasuna iritsi gabe gelditu izana azaltzen duen argudio erantsirik, erakunde politikoekin eta autogobernuarekin lotutakorik: hala nola Kataluniak

1932an lortu baitzuen bere Autonomia Estatutua, Euskadirentzako Autonomia Estatutua eta Eusko Jaurlaritza ez ziren 1936a arte iritsiko, gerra piztua zela. Autonomia Estatuturik eta Eusko Jaurlaritzarik ezean, Ipar Taldeko arkitektoek ez zuten modurik izan etxegile partikularrek edota tokiko erakundeek enkargaturikoak baino eskala edo helburu goiagoko proiekturik egiteko. Lurralde mailako egitasmorik inoiz ibili bazuten esku artean, ez zen teoriaren eremuaren mugaz gaindi izango. Desabantaila handia, bistan da, Bartzelonako kideekiko. Horrek ere eragingo zuen, pentsatzekoa da.

### **Bildumaren egokitasunaz**

Deitoragarria begitantzen zaigu Ipar Taldeko arkitektoek egindako proiektuen bilduma oraino egin ez izana. Hutsune historiografiko hori betetzeko helburuz, hain zuzen, '20th century Architecture. Technical and Cultural Studies' ikerketa-taldeak (GIU22/005, EHU/UPV) GATEPACeko Ipar Taldeak 1930-1936 aldian egindako proiektuen konpilazioa egiteko finantzaketa eskatu zuen, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Zuzendaritzak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Arkitekturako Goi Eskola Teknikoak sinatutako hitzarmenaren baitan. Baina gabezia hori leheneratzeko borondateari ez ezik, proiektuak jarraian aipatuko ditugun beste arrazoi batzuei erantzuten die ere.

Lehenik eta behin, GATEPACen beraren nazioarteko oihartzuna, azken berrogeita hamar urteetan, hala Espainiako historiografian nola Europako nahiz Ipar Amerikako historiografian, ugariak izan baitira hari buruzko ikerketa-lanak eta argitalpenak. Hain da objektu erakargarria, non hari buruz sortutako jakintza berriaren oihartzuna berehala hedatzen baita.

Bigarrenik, irisgarritasuna, edo bestela esanda, proiektu guztiak eskuratzeko aukera egiazkoa, ez baita nahitaez gertatzen bestelako konpilazio-ekimenetan. Izan ere, bildu beharreko obren kopurua nahiko murrizta da; lehenik eta behin, Ipar Taldeko arkitektoek ez zuten beti lengoaia modernoa baliatu izan beren proiektuak ebazteko; bigarrenik, GATEPACen indarraldia Bigarren Errepublikaren garaiarekin bat dator (1931-1939), garai nahasia, politikoki ez ezik, ekonomikoki ere: 1929ko kraka,

Depresio Handia, Faxismoaren goraldia, eta azkenik, zer eta Espainiako Gerra Zibila (1936-1939). Hori dela eta suertatu zen garaiko eraikingintza-jarduera urri samarra.

Hirugarren, taldearen jaiotzaren mendeurrenaren hurbila, 2030ean izango baita. Komenigarria litzakete urte hartara informazio guztia bilduta iristea, baita kide guztien ibilbide pertsonal eta profesionalak argituta ere. Pilaturiko material guztia ezagutarazteko parada egokia izango da 2030a, era guztietako argitalpen, erakusketa eta hitzaldiei bide emango baitie.

Nola da posible gaur arte GATEPACen euskal adarrak egindako proiektuen zerrenda zehatza eman ez izana? Ba, seguru aski, taldearen osaerari buruzko konfusioari zor zaio. Ematen du batzuetan ez dela onartu nahi izan Ipar Taldeak kide berriak egin zituela bere ibilbide laburraren bigarren erdian. Bilduma hau egin dugunok sumatu izan dugu errezelarik, han eta hemen, Ipar Taldean parte hartu zuten arkitekto guztien ekarpena aitortzeko. Erresistentzia horren ondorioz bilketa-lana behin eta berriz atzeratu delakoan gaude.

### **Proiektuak hautatzeko galbahea**

Iparraldeko Taldean kide berriak sartu izanak aberastasuna ekarri zuen, eta baita tirabirak ere. Aizpúrua, Labayen eta Vallejok, 1926an eta 1927an Madrilgo Arkitektura Eskolan tituludunak, Mugimendu Modernoaren eta CIAM kongresuekiko konpromiso erabatekoa erakutsi zuten, hala nola egin baitzuten Madariaga eta Zarranz gazteek ere.

Alabaina, ez dago gauza bera esaterik 1933an sartutako kide guztiei buruz. Horietako batzuek, ikasketak amaitutako gazterik tartean zela, beste lengoaia batzuk ere baliatzera jo izan zuten, hala nola Euskal Estiloa edo historizista, enkarguen inguruabarrak tarteko: izan sustatzailearen gustua, izan etxea kokatzekoa zen inguruaren ezaugarriak. Horien artean ditugu José Antonio Ponte eta Juan José Olazabal, 1929an eta 1931n titulatuak eta beraz, gazteen taldekoak. Beste batzuk, hala nola Tomás Bilbao eta Luis Vallet de Montano, 1918 eta 1920an titulatuak, 25eko belaunaldikoak ziren (FLORES,

1961); estilo aniztasunean ondutako arkitektoak, zeinek 1932tik aurrera egin baitzuten bat arkitektura moderno edo arrazionalistarekin, nahiz bestelako estiloei uko egin gabe. Gauza bera esan liteke Eduardo Lagarderi buruz, berrogeita hamar urte zituela egin baitzuen bat Ipar Taldearekin. Zaharrok marrazkilari bikainak ziren, estiloak ongi ezagutzen zituzten, eta hautaturiko lengoaia arkitektonikoa edozein zela ere gai ziren proiektu bat trebeki ebazteko. Ez zen jarrera fríboloa; arkitektura lengoaia jakin baten ezaugarri diren alderdi formal eta konstruktibo guztiak berenganatzeko eta aplikatzeko gaitasuna zen. Izan ere, estiloa tresna bat zen, lanabes bat. Zabaltze haren ondorioz, eta 1934an kide berriak sartu zirenetik Ipar Taldearen ekoizpena dezente handituta, beharrezkoa izan da proiektuak galbahetik igaroztea, Mugimendu Modernoari atxikitzen zaizkion ala ez ebazteko. Lengoaia modernoak berezko eta bereizgarriak dituen elementuen erabileraren baitan gelditu da, beraz, proiektu bati edo besteari Ipar Taldearen lanen bilduman sarrera ematea ala ez.

### **Iturriak: aldizkariak eta artxibategiak**

Proiektuak biltzeko bi iturri kontsultatu ditugu. Alde batetik, iturri bibliografikoak, Espainiako arkitektura aldizkariak, bereziki. 1930-1938 aldian Espainian publikaturiko aldizkari aztertu ditugu, Ipar Taldeko arkitektoen proiektuen bila. Hauek dira aldizkariak: *AC Documentos de Actividad Contemporánea* (Bartzelona, 1930-1937), *Arquitectura* (Madril, lehenengo aldia: 1918-1931, eta bigarrena: 1932-1936), *Propiedad y Construcción: revista mensual técnica información* (Bilbo, 1924-1936) eta *Cortijos y Rascacielos* (Madrid, 1931-1936 aldia). Halaber aztertu dugu *Nueva Forma: arquitectura, urbanismo, diseño, ambiente, arte* aldizkaria, nahiz geroagokoa izan (Madril, 1968-1975).

Bestalde, kontsulta sistematikoa egin dugu Ipar Taldeko arkitektoek lan egin zuten lurraldeetako udal artxiboetan: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa (horien artxiboak Euskadiko Artxiboen Sistema Nazionalaren parte dira), eta Nafarroako udal artxiboetan eta Nafarroako Artxiboen Sistemaren. Halaber kontsultatu ditugu Euskadiko eta Nafarroako Artxibo Historikoak. Horietan guztietan proiektuen kopia digitalak eskatu ditugu, artxibatu, editatu eta antolatzeko gero.

Argazkien kopiak ere eskatu ditugu, halakorik zegoenetan.

### Zenbat proiektu dira?

Zenbat arkitektura-lan egozten ahal zaizkion GATEPACeko euskal taldeari? Asko al dira? Ez, ez asko. Alde batetik, esan bezala, zenbait kidek 'zegokionean' baizik ez zuten lengoaia modernoa baliatu izan. Bestalde, arestian esandako arrazoiak tarteko, eraikingintza urria izan zen oso, bai sustapen pribatuaren arloan, eta baita publikoaren ere.

### Iturriak

#### Bibliografia

- AGUIRRE, Peio (2016): "Modernitate bakan baten kontakizuna", in P. Aguirre (koord.): *Modernitate bakan bat. "Arte berria", Donostiaren inguruan*, Donostia, San Telmo Museoa, 9-34 or.
- AIZPURUA, José Manuel (1930): ¿Cuándo habrá arquitectura?, *La Gaceta Literaria* (1930eko martxoaren 1ean), 9 or.
- BOHIGAS, Oriol (1970): *Arquitectura española de la Segunda República*, Bartzelona, Tusquets.
- FLORES, Carlos (1961): "Mercadal y los arquitectos de la Generación del 25", in C. Flores (ed.): *Arquitectura Española Contemporánea*, T1 (1880-1950), Madril, Aguilar.
- FRAMPTON, Kenneth (1981): *Modern Architecture: A Critical History*, Londres, Thames and Hudson.
- MEDINA, José Angel (2011): *José Manuel Aizpurua eta Joaquín Labaien*, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala.
- MUMFORD, Eric (2000). *The CIAM Discourse on Urbanism, 1928-1960*, Cambridge, Massachusetts, MIT Press.
- MUÑOZ FERNÁNDEZ, Francisco Javier (2009): AC/GATEPAC (Iparraldeko Taldea). Arkitektura berri baten hasiera gerraurreko Euskal Herrian, *Ondare*, 27, 237-276 or.
- (2011): *La Arquitectura Racionalista en Bilbao (1927-1950). Tradición y Modernidad en la época de la máquina*, Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- PIZZA, Antonio (2006): "La experiencia del GATCPAC en el contexto de la arquitectura española", in S. Landrove (Koord.): *El GATCPAC y su tiempo. Política, cultura y arquitectura en los años treinta*. Actas del Congreso Fundación del Docomomo Ibérico, 13-19 or.
- SANZ ESQUIDE, José Ángel (1986): "La Arquitectura en el País Vasco durante los años treinta", in: *Arte y artistas vascos de los años 30. Entre lo individual y lo colectivo*, Gipuzkoako Foru Aldundia, 13-138 or.
- (1988): "La arquitectura en el País Vasco durante los años treinta", in Moya, A., Sáenz de Gorbea, X. eta Sanz Esquide, J.A. (Zuz.): *Arte y Artistas vascos de los años 30. Entre lo individual y lo colectivo*, Gipuzkoako Foru Aldundia, 13-138 or.
- (1988b): *La tradición de lo nuevo en el País Vasco. La arquitectura de los años 30*, Universitat Politècnica de Catalunya.
- URRUTIA, Ángel (1997): *Arquitectura española del siglo XX*, Madrid, Cátedra.

#### Arxiu històric del Col·legi d'Arquitectes de Catalunya

Acuerdos tomados en la reunión celebrada en el Gran Hotel de Zaragoza los días 25 y 26 de Octubre, 1930 para la constitución del "Grupo Español de arquitectos y técnicos para el progreso de la arquitectura contemporánea G.A.T.E.P.A.C." , C 1/9.

Carta del 18 de octubre de 1933 remitida por Josep Torres Clavé a José Manuel Aizpúrua, C12/73.

Carta remitida el 28 de diciembre de 1933 por José Manuel Aizpúrua a Josep Torres Clavé, C12/73.

Carta del 5 de enero de 1934, remitida por Josep Torres Clavé a José Manuel Aizpúrua, C12/73.

Horren guztiaren ondorioz, Ipar Taldeko obrek multzo mugatu eta kuantifikatzeko modura osatzen dute. Zenbat lan izan ziren, bada? Hirurogei bat. Horietatik 35 bat eraiki ziren, partikularren enkarguen ondorioz gehienak, eta zutik diraute, bakarren bat izan ezik. Eraiki gabeko proiektuak lehiaketetara aurkeztutako proposamenak dira gehienak, bai udal mailako norgehiagokatan, bai ministerioren batek deiturikoetan. Han eta hemen aurkitu ahal dira, hiriguneetan normalean. Horiek osatzen dute GATEPACeko Ipar Taldearen emaitza. Bego bada, bere horretan, aintzat hartua eta gogoratua, beharra badu eta.

## 2 El Grupo Norte del GATEPAC (1930-1937). Un marco para una recopilación de proyectos arquitectónicos

Lauren Etxepare

Aunque apenas durara siete años, el *Grupo de Artistas y Técnicos Españoles para el Progreso de la Arquitectura Contemporánea* (GATEPAC) trajo una profunda renovación del panorama arquitectónico. Nunca en España se había seguido tan de cerca la estela de la vanguardia arquitectónica como durante el periodo de vigencia de esta organización. De ahí la admiración despertada por el GATEPAC entre los arquitectos de la vanguardia francesa y alemana, convencidos de que el país iba camino de recuperar el retraso del que adolecía tiempo atrás, en términos arquitectónicos, culturales y tecnológicos.

El GATEPAC no surgió, desde luego, de la nada. Fue, en primer lugar, fruto de la iniciativa de un grupo de personas estimuladas por determinados agentes, y fue, también, producto de un ambiente político y cultural ciertamente especial, origen de una profunda transición. Por un lado, fue consecuencia de una virulenta reacción contra las grandes exposiciones celebradas en 1929, en las cuales la arquitectura jugaba un papel de primer orden. Ambas exposiciones, la Internacional de Barcelona y la Iberoamericana de Sevilla, hicieron gala de una arquitectura autocomplaciente, basada en la recreación historicista; una arquitectura a la que José Manuel Aizpúrua tildó de pastelera (1930). Hacía tiempo que el deseo de romper con todo aquello había despertado entre los estudiantes de la Escuela de Arquitectura de Barcelona, y también entre algunos estudiantes de la Escuela de Madrid, entre los que se encontraban Aizpúrua, Joaquín Labayen y Luis Vallejo. Influyó también, por supuesto, el *Congrès International d'Architecture Moderne* recientemente constituido (CIAM) y la voluntad de trasladar al contexto español los temas tratados en su seno: la industrialización de la construcción, la vivienda mínima y las nuevas formas de organización urbana. Al fin y al cabo, la institución que estaba a punto de nacer iba a convertirse en la delegación española del *Comité International pour la Résolution des Problèmes de l'Architecture Contemporaine* (CIRPAC),

organizador del CIAM y encargado de aplicar localmente las estrategias acordadas en sus congresos internacionales.

Por otra parte, tras el Pacto de San Sebastián celebrado en el verano de 1930, era evidente que se avecinaba un cambio político de gran calado. La dictadura de Primo de Rivera mostraba síntomas de debilidad, como también lo hacía la propia monarquía, encarnada por Alfonso XIII. Se atisbaba un cambio de régimen que no tardaría en llegar. Además, siguiendo determinadas iniciativas asociacionistas nacidas en Europa y Norteamérica en favor de una nueva arquitectura, los impulsores del GATEPAC se valieron del clima de cambio para ejercer de lobby e influir en favor de la arquitectura moderna.

Hay, entre los antecedentes, algunas iniciativas de carácter colectivo que ejercieron una evidente influencia. Recordemos el *Grup Català d'Arquitectes i Tècnics per a la Solució dels Problemes de l'Arquitectura Contemporània* (GCATSPAC), creado en 1929 por Josep Lluís Sert, Josep Torres Clavé y otros arquitectos catalanes, así como el grupo ADLAN — Amics de l'Art Nou — creado al amparo de aquél. En realidad, de haber estado en manos de los catalanes, estos hubieran participado por su propia cuenta en las reuniones del CIRPAC; no en vano, Cataluña experimentaba un fuerte impulso político renovador que se veía favorecido por el régimen político venidero. Sin embargo, dado que las delegaciones solo podían participar en representación de un Estado, los catalanes se vieron obligados a unirse a un grupo estatal que nacía con posterioridad al suyo, y que vendría a ser una delegación española del CIRPAC. Se trataba de un arreglo.

### El GATEPAC y la Segunda República

El vínculo entre el GATEPAC y la Segunda República Española no se debe solo a su coexistencia; son fenómenos relacionados entre sí. En primer lugar, desde el punto de vista temporal: el GATEPAC nació a

finales de octubre de 1930, mientras que la Segunda República fue proclamada el 14 de abril de 1931. Apenas medio año de diferencia. También coinciden en lo que a su extinción se refiere, si bien la fecha no es tan fácil de concretar, ya que está directamente relacionadas con el momento en que los vencedores de la Guerra Civil se hicieron con el dominio de uno u otro territorio: septiembre de 1936 si se trata del Este de Gipuzkoa; junio de 1937 de tratarse de Bilbao, o enero de 1939, en el caso de Barcelona. La guerra supuso un duro golpe para la organización, incluidos sus miembros, algunos de los cuales murieron fusilados o abatidos en el frente.

Pero no solo se trata del principio y el final. En lo que al Grupo Norte se refiere, las etapas en las que se divide su trayectoria coinciden con los periodos del régimen republicano, como si sus ciclos internos estuvieran unidos, ya que poco después de finalizar el primer bienio de la Segunda República, recién iniciado el segundo bienio tras las elecciones generales de 1933, se constituía por segunda vez el Grupo Norte. Si en 1930, cuando nació al abrigo del GATEPAC, el Grupo Norte se componía tan solo de tres miembros, a partir de 1933 incorporaría a otros nueve. El grupo y el régimen republicano vivirían un tercer y último periodo que apenas duró medio año, el cual comenzó con la victoria del Frente Popular en las elecciones a Cortes de 1936 y terminó con la Guerra Civil tras el Alzamiento del 18 de julio. Hacía años que el panorama político venía tensionándose; ni qué decir tiene tras la sublevación y el comienzo de la guerra. El Grupo Norte del GATEPAC, con José Manuel Aizpúrua entregado a sus actividades políticas y a sus responsabilidades en el ministerio de Instrucción Pública, apenas tuvo actividad, si bien algunos de sus miembros vizcaínos pudieron continuar un tiempo más, dada la estabilización del frente en el País Vasco (1936-1937), pudiendo finalizar los proyectos que tenían entre manos o trabajar al servicio del Gobierno Vasco, recientemente creado.

### **La constitución del Grupo Norte en el marco del GATEPAC (1930)**

Fue Fernando García Mercadal quien promovió la celebración de una asamblea para la constitución del GATEPAC, no sin la colaboración de Josep Lluís Sert, invitando a arquitectos de toda España. El grupo,

constituido el 26 de octubre de 1930 en el Gran Hotel de Zaragoza, fue bautizado como *Grupo de Artistas y Técnicos Españoles para el Progreso de la Arquitectura Contemporánea*: GATEPAC — inspirado evidentemente por el nombre del grupo fundado en Barcelona el año anterior —. Los impulsores, además de arquitectos, pretendían atraer a industriales y técnicos del sector de la construcción. No sólo se trataba de construir una nueva arquitectura, sino de desarrollar e implementar nuevos sistemas y materiales (MUÑOZ 2009: 245-247). Sin embargo, no hubo más que arquitectos en aquella reunión. Diez de ellos catalanes — Cristóbal Alzamora, Pere Armengou, Ricardo Churruga, Sixte Illescas, Germán Rodríguez Arias, Josep Lluís Sert, Manuel Subiño y Josep Torres Clavé —; tres de Madrid — Fernando García Mercadal, Víctor Calvo Martínez de Azcoitia y Felipe López Delgado —, y sólo dos del País Vasco: Joaquín Labayen y Luis Vallejo —. Así quedó reflejado en el acta fundacional que obra en el Colegio de Arquitectos de Cataluña (Arxiu històric, C 1/9), si bien al poco tiempo se sumarían otros, entre ellos José Manuel Aizpúrua — quien añadiría su firma al final del acta —.

No hubo representantes de otros territorios. En Andalucía, por ejemplo, no había una escuela de arquitectura, ni existía una masa crítica ni entusiasmo suficiente, tal como lo demuestra la Exposición Iberoamericana de 1929. La publicación, por otro lado, de varios artículos de Le Corbusier y Alberto Sartoris en la revista internacional y socialista *Gaceta de arte* (1932), editada por Eduardo Westerdhal en Santa Cruz de Tenerife, es prueba de que en las islas Canarias existía interés por la arquitectura moderna, por mucho que no cuajara en forma de organización alguna (URRUTIA 1997:264).

El GATEPAC se constituyó como una organización formada por tres grupos: el Grupo Este, el Grupo Centro y el Grupo Norte, según la nomenclatura establecida por Fernando García Mercadal, para quien Madrid era el centro de la institución, al igual que era la capital de España. Los catalanes alternarían el nombre de Grupo Este con el de GATCPAC, por motivos obvios. Más allá de las denominaciones y la adhesión al nuevo lenguaje arquitectónico, todos se comprometieron con el desarrollo social en todos los aspectos de la vivienda, los servicios y la ciudad:

mejora de las condiciones de habitabilidad, educación y salud universal.

Los concursos de arquitectura fueron vitales para los miembros del GATEPAC, ya que ofrecían mayores posibilidades que los mandatos profesionales. Eran una ocasión ideal para ensayar y promover una nueva arquitectura. Con el fin de revitalizar el proceso de modernización de España y de hallar soluciones adecuadas a las nuevas necesidades dotacionales y de infraestructuras, fueron convocados una gran cantidad de concursos, a los que los componentes del Grupo Norte recurrieron frecuentemente, ya fuera en grupo, en pareja o incluso en solitario. Puestos a destacar a alguno de los miembros del Grupo Norte, citemos a José Manuel Aizpúrua y Joaquín Labaien, quienes presentaron sus proyectos en diferentes convocatorias, ya fueran de ámbito municipal o estatal, como el Premio Nacional de Arquitectura.

### **La (re)constitución del Grupo Norte (1934)**

La segunda constitución del Grupo Norte se llevó a cabo a los tres años del nacimiento del GATEPAC. Fue a finales de 1933. La Segunda República entraba en su segundo bienio, con un gobierno de centroderecha republicana encabezado por el Partido Republicano Radical de Alejandro Lerroux, y el apoyo de la derecha católica de la CEDA y del Partido Agrario. Comenzaba un periodo políticamente convulso, en general; también en el seno del GATEPAC. Dada su poca actividad, el Grupo Centro fue inhabilitado por los catalanes, quienes apremiaban también a los vascos; sirva como muestra la carta del 18 de octubre de 1933, remitida por Josep Torres Clavé al líder del Grupo Norte: “Amigo Aizpúrua, hace tiempo que no tenemos noticias vuestras; no os habréis hecho analfabetos, ¿verdad? ¿Cómo va el Grupo Norte? ¿No os vais a lanzar con nuevos proyectos, ahora que incorporáis a nuevos miembros?”

Torres Clavé sabía de los esfuerzos realizados por Aizpúrua para atraer nuevos miembros al Grupo Norte. Ciertamente, el donostiarra trataba de engrosar el colectivo, ya fuera estrechando relaciones con algunos arquitectos con los que habían colaborado recientemente, ya fuera atrayendo a nuevos arquitectos. Así es como se dirigía Aizpúrua a Josep Torres Clavé a finales de año: “tenemos

grandes proyectos entre manos, y tenemos mucha ilusión. Proyectaremos escuelas rurales, escuelas profesionales e Institutos de Segunda Enseñanza para toda Euskadi, y después continuaremos proyectando los ensanches y trabajos de urbanización para las principales poblaciones”.

El donostiarra se mostraba satisfecho por el hecho de haber conseguido atraer al grupo a otros nueve arquitectos: “Aizpúrua, Labayen, Lagarde, Vallet, Ponte, Olazabal, Baroja y Alberdi, de San Sebastián; Vallejo, Bilbao y Madariaga de Bilbao; y Zarranz de Pamplona”. Era la primera vez, desde la constitución del GATEPAC, que el líder del Grupo Norte daba cuenta y razón de la composición del grupo. En enero de 1934 le respondía Torres Clavé: “Enhorabuena a todos; daremos cuenta de la nueva constitución del grupo en la próxima reunión”. A falta de otros documentos, estas dos cartas adquieren una importancia fundamental, y deberían ser consideradas como si de un acta de constitución se tratase.

Como consecuencia de la incorporación de nueve arquitectos, no solo se cuadruplicaba el número de miembros del Grupo Norte; además, el grupo adoptaba un carácter plural, en cuanto a perfiles, estudios, edades y visiones.

### **Un grupo a medio conformar**

Al igual que el Grupo Centro, dirigido por Fernando García Mercadal, el Grupo Norte no llegó a alcanzar la madurez plena. Ninguno de los dos grupos mostró una actividad mínimamente equiparable a la del Grupo Este. Señalemos, por un lado, especialmente durante el segundo bienio de la Segunda República (1933-1936), las diferencias ideológicas que existían entre sus miembros, las cuales tenderían a tensionarse a medida que se agudizaba el clima político en España y en Euskadi; en segundo lugar, recordemos que el líder del grupo, José Manuel Aizpúrua, se acababa de comprometer con Falange Española, y que fue además nombrado, en 1934, arquitecto del Servicio de Edificios Escolares, en el ministerio de Instrucción Pública. Semejante actividad hacía prácticamente imposible la coordinación del grupo.

Hubo otros motivos por los que el Grupo Norte no alcanzó la madurez. Uno es el hecho de que no todos los arquitectos modernos del País Vasco se comprometieron con el GATEPAC. Hubo arquitectos modernos no vinculados al grupo que mostraron trayectorias más brillantes que la de algunos miembros del Grupo Norte. Citemos, aunque sin ánimo de recordar a todos, al donostiarra Pablo Zabalo, al tolosarra Florencio Mokoroa, al ordiziarra Domingo Unanue, al pamplonés Víctor Eusa, a los vitorianos Jesús Guinea y José Luis López de Uralde, al oiondarra Arturo Sáenz de la Calzada o al bermeotarra Pedro Ispizua. ¿Por qué no se adhirieron al Grupo Norte? Digamos, en primer lugar, que, si en algún lugar era aquel grupo capaz de extender su red, era en el territorio de Gipuzkoa, ya que su principal precursor e inductor estaba afincado en San Sebastián; de ahí las dificultades para atraer a miembros de otros territorios. Hubo también quien no quiso asociarse a una organización tan plenamente identificada con el lenguaje moderno, y habría también, probablemente, quien no gustara de trabajar en grupo, o, simplemente, quien declinara la invitación por alguna aversión personal.

La incorporación de nueve arquitectos tras la refundación de 1934, por otro lado, distorsionó la coherencia inicial del Grupo Norte, en términos arquitectónicos. Así como los primeros miembros de la formación estaban perfectamente identificados con los principios y directrices de los CIAM, entre los que se habían incorporado a finales de 1933 había arquitectos con una trayectoria anterior, quienes emprenderían una nueva etapa profesional en la que imperaría el lenguaje moderno, sin renunciar por ello a otros estilos y sintiéndose libres de todo compromiso con respecto a lo prescrito por los CIAM.

Hay, por último, otros argumentos de tipo político que explican por qué el Grupo Norte no alcanzó una actividad plena, ligados a las instituciones políticas: así como Cataluña obtuvo su Estatuto de Autonomía en 1932, el Estatuto de Autonomía para Euskadi y el Gobierno Vasco no llegarían hasta 1936, desencadenada ya la Guerra Civil. Dada la carencia de un estatuto y un gobierno, los arquitectos del Grupo Norte no pudieron realizar proyectos de escala o finalidad superior a los encargados por particulares o gobiernos locales. Una gran desventaja, ciertamente,

respecto a sus compañeros catalanes.

### **Sobre la idoneidad de la recopilación**

Llama negativamente la atención que hoy por hoy no haya sido hecha una recopilación exhaustiva de los proyectos arquitectónicos realizados por los arquitectos del Grupo Norte. Con el fin de arrojar luz sobre esta laguna historiográfica, el grupo de investigación "Arquitectura del siglo veinte. Estudios Técnicos y Culturales" solicitó financiación para un proyecto destinado a recopilar los proyectos arquitectónicos realizados por el Grupo Norte entre 1930 y 1936, en el marco del convenio suscrito entre la Dirección de Vivienda del Gobierno Vasco y la Escuela Técnica Superior de Arquitectura de la EHU-UPV. Además de la voluntad de restituir dicha carencia, la iniciativa responde a otros motivos que apuntamos a continuación.

En primer lugar, el eco internacional del propio GATEPAC, un objeto de investigación sumamente atractivo a la vista de los numerosos trabajos de investigación de los que ha sido objeto durante los últimos cincuenta años, tanto en la historiografía española, como en la europea o norteamericana. Es algo que multiplica el impacto y el eco de toda información generada al respecto.

En segundo lugar, la accesibilidad y posibilidad de recopilar la totalidad de los proyectos, algo que no sucede necesariamente en otras iniciativas compilatorias. En efecto, la cantidad de obras a recopilar se ha revelado relativamente reducida: en primer lugar, los arquitectos del Grupo Norte no siempre recurrieron al moderno para resolver sus proyectos; en segundo lugar, la vigencia del GATEPAC se corresponde con el periodo de la Segunda República (1931-1939), un periodo convulso, no solo políticamente, sino económicamente: el Crack de 1929, la Gran Depresión, el auge del fascismo, y por último, la Guerra Civil Española (1936-1939). De ahí que la actividad edificatoria fuera menor.

Por último, la cercanía en el tiempo del año 2030, en el que se celebrará el centenario del nacimiento del grupo. Convendría llegar a esta fecha con toda la información recabada, y esclarecidas las trayectorias personales y profesionales de todos sus miembros.

Será una ocasión propicia para dar a conocer todo el material recopilado, que dará pie a todo tipo de publicaciones, exposiciones y conferencias.

¿Cómo es posible que no haya sido dada hasta hoy la relación exhaustiva de los proyectos realizados por la rama vasca del GATEPAC? Se debe, principalmente, a la confusión existente sobre quiénes formaron el Grupo Norte. Quienes suscriben esta comunicación han detectado no pocas reticencias a reconocer la aportación de todos los arquitectos que en un momento u otro participaron en el grupo. Como consecuencia de dicha resistencia, palpable incluso entre investigadores y académicos, la tarea recopilatoria ha sido pospuesta una y otra vez.

### **Discriminación de los proyectos**

La incorporación de nuevos miembros al Grupo Norte hizo que la producción arquitectónica del mismo adquiriera un carácter plural, en términos estilísticos. Aizpúrua, Labayen y Vallejo, titulados en la Escuela de Arquitectura de Madrid en 1926 y 1927, habían mostrado un compromiso inquebrantable con el Movimiento Moderno y los congresos CIAM, como también lo hicieron Madariaga y Zarranz, jóvenes como ellos.

Sin embargo, no cabe decir lo mismo con relación a todos los miembros incorporados en 1933. Algunos de ellos, aunque recientemente colegiados, habían recurrido también a otros lenguajes, como el estilo Neovasco o historicista. Pongamos por caso a José Antonio Ponte o a Juan José Olazabal, titulados en 1929 y 1931. Otros, como Tomás Bilbao y Luis Vallet, titulados en 1918 y 1920, eran de la generación del 25 (FLORES, 1961); arquitectos curtidos en la diversidad estilística, que efectivamente adoptaron el lenguaje moderno a partir de 1932, pero que no por ello renunciaron a otros lenguajes; lo mismo sucede con Eduardo Lagarde, titulado en 1911, quien se unió al Grupo Norte a la edad de cincuenta años. Eran grandes dibujantes, capaces de resolver un proyecto cualquiera que fuera el lenguaje arquitectónico que emplear. No era una actitud frívola; era capacidad de absorber y aplicar todos los aspectos formales y constructivos que caracterizan a un determinado lenguaje arquitectónico. El estilo era una herramienta en sí mismo.

Como consecuencia de esta apertura, y dado que a partir de la incorporación de los nuevos miembros en 1934 el bagaje del Grupo Norte se amplió considerablemente, ha sido preciso discriminar los proyectos, en función de su adscripción o no al Movimiento Moderno. De su composición, del empleo de elementos arquitectónicos y estilísticos propios y característicos del moderno, dependerá la incorporación o no de un proyecto arquitectónico a la recopilación de proyectos del Grupo Norte.

### **Fuentes empleadas: revistas y archivos**




56

63



# 1933 Urkixo zumarkaleko 58-64.eko etxeak

## Conjunto de viviendas Alameda de Urquijo 58-64

**Bilbo-Bilbao. T. Bilbao**

Tomás Bilbao modu bateratuan ebatzi zituen lau eraikinak. Izan ere, etxebizitza mota bakarra proposatu zuen, zabalguneko etxe-irlen partzelazioak ezarritako neurriei egokitua. Partzelak, estua eta sakona baitzen, barneko patio bat zabaltzera behartu zuen arkitektoa. Etxebizitzetako gelak batzuk espazio ireki horren inguruan antolatzen dira; beste bi edo hiruk fatxadan ezarriak dira. Etxebizitza bakoitzaren mehelinari itxekita, gelalara iristeko korridore luze bat.

*Tomás Bilbao resolvió los 4 edificios de modo unitario, proponiendo un único tipo de vivienda adaptado a las dimensiones impuestas por la parcelación de la manzana de ensanche. La parcela, estrecha y profunda, obliga a la inclusión de un patio interior. Las viviendas se organizan en torno a este espacio abierto y con una fachada que sirve para iluminar dos o tres habitaciones, teniendo que recurrir a un largo pasillo que se ubica en la medianera de cada vivienda.*



# 1933 Henao kaleko 15.eko etxea


## Casa en el nº 15 de la calle Henao

### Bilbo-Bilbao. T. Bilbao


Etxea Heros eta Henao kaleek arteko kantoian kokatua dago, eta bere gaineratik erantsitako atiko bikoitzak nortasun handia ematen dio. Aurrealdea ageriko adreiluekin osatua dago, eta baita hormigoi armatzuko marko, koloma eta begiratokiekin ere. Barrualdean, patio zabal bat, eskailerak aireztatzeko. Ereduek hiru etxebizitza hartzen ditu; guztiek dituzte zerbitzarientzako gelak.

*Es un bloque en esquina, del que sobresale un doble ático que da un especial carácter al edificio. Su fachada está resuelta con paños de ladrillo caravista y cercos, columnas y miradores en hormigón armado. En el interior, un patio central para ventilación de las escaleras. La planta tipo cuenta con tres viviendas; todas ellas con zona para el servicio.*


66



68



67



69


# 1933 Lanbideak ikasteko Eskolarentzako proiektua

## *Proyecto para Escuela Elemental del Trabajo*

Ávila. L. Vallejo

Hezkuntza ministerioak deitu zuen lehiaketa, Lanbide-eskola bat egiteko Ávilan. Luis Vallejok proposamen ausarta egin zuen. Eraikinaren zati nagusia, hiru ikasgune eta korridore batek osatzen dute. Ikasguneek bi solairu dituzte, eta goikoa barneratu egiten da, egutera zabalduriko terrazai tokia egiteko. Bere marrazkiak, altzeiruzko egitura bat iradokitzen du, eta baita eraikuntza lehorra erabiltzeko asmoa: altzeirua, panelak, beirateak eta halakoak.

*Se trata de una propuesta de Luis Vallejo al concurso convocado por el Ministerio de Instrucción Pública para construir una escuela profesional en Ávila. Luis Vallejo hizo una propuesta valiente, como solía hacer siempre. La parte principal de la escuela se compone de tres aulas de formación, unidas por un corredor. Las aulas cuentan con una doble altura, y una terraza en su parte superior. El dibujo de Vallejo sugiere una estructura en acero, con elementos montados en seco: paneles, acero, ventanales, cubiertas de chapa.*





# 1933 José Fuertesentzako etxea

## *Casa para José Fuertes*

Irun. L. Vallet

Apirilaren 14ko etorbidean eraikiriko etxea da, Valletek asmatutakoa. Taju estiliztua baliatu zuen bertan; ez erabat arrazionalista. Lau isurialdeko teilatupeko etxe bat irudikatu zuen, geruzaka antolatutako aurrealde zurikoa. Lau fatxaden horizontaltasuna nabarmentzearen, kiribil eta erlaitzekiko zerrendatan txertatu zituen leihoak. Hormigoizko lauza mehe batekin osatzen du aurrealdeko balkoia, bi solairuak berezita nolabait ere.

*Edificio situado en la Avenida 14 de Abril, creado por José Vallet. El arquitecto adoptó un lenguaje más austero, inspirado en la estética racionalista. Bajo una tradicional cubierta de cuatro vertientes, planteó una vivienda con fachadas estratificadas, acentuando la horizontalidad de los alzados mediante la integración de las ventanas en una serie de fajas rematadas con molduras y cornisas. Una losa volada de hormigón sirve de terraza en la primera planta, separando los dos niveles.*




# 1933 Zerbitzu pabiloia Irungo Nazioarteko Zubian

## *Pabellón de servicios en el Puente Internacional de Irún*

**Irun. L. Vallet**

Luzetarako pabiloi bat irudikatu zuen arkitektoak, solairu bakarrekoa eta hiru gelatan antolatua: Probintziako Zerga Biltegia, Udal Zerga Biltegia eta Guardia Zibilarentzako egoitza. Ate eta leiho bana egokitu zien, eta hormigoizko lauza luze bat ezarri guztien gainean, eguzkitatik eta euratik babesteko. Halaber zabaldu zituen, ibaiaren hurbiltasuna zela-eta apika, zenbait itsas elementu, hala nola zortzi idi-begi.

*El arquitecto proyectó un pabellón longitudinal de una sola planta, organizado en tres salas: una para la recaudación de los impuestos provinciales, otra para los tributos municipales y otra como sede de la Guardia Civil. Abrió una puerta y una ventana a cada una, y dispuso una losa de hormigón para protegerlas. También abrió algunos elementos marinos, como los ocho ojos de buey.*



# 1933 Etxebizitza sendibakarra Son Armadans-en




## *Casa unifamiliar en Son Armadans*

Mallorca. L. Vallet

Nabarmena da beheko solairuaren erdiguneko zirkuluerdi formako atala, zeinak Anguera Dokotorearentzako etxea gogora dakarren. Begiratoki horren albo batean atal kubiko bat ezarri zuen, bi leihorekin, eta bestean, berriz, etxeke sarrera babesten duen ataripea. Hiru atal horien gainean, burdinazko tutuzko barandaz babesturiko terraza bat zabaldu zuen. Fatxadak apaindura gutxikoak dira, eta zarpio zuriko akabera eman zitzaizkien, estalkiko erlaitz mehe batek babestuta.

*Destaca en el piso inferior el volumen semicircular de la parte central, que recuerda de manera evidente al empleado en la casa para el Doctor Anguera, al cual anexó un pequeño cubo. Un cuerpo similar se prolonga hacia el lado derecho, adoptando esta vez un carácter de soportal. Toda la superficie del volumen semicircular y la de los cuerpos laterales sirve de soporte para una cubierta plana.*

75



76



62

77


# 1933 Larraina Kirol-Kluba

## Club Deportivo Larraina

### Iruñea-Pamplona. J. Zarranz


Zarranzek proposamen ausarta aurkeztu zien klubeko arduradunei: igerilekua, aire zabaleko bi frontoi eta tenis-pista bat. Horiez gain, eraikin soziala; hark ematen dio instalazio multzo osoari izaera berezia. Sarreraren parean zegoen, igerilekuaren mutur batean. Atal txiki bana dauka alboetan, ataurre modukoa osatzen eta aldagelak hartuz. Haren gainetik, atal zenbait hegalean irtenaraziz, solairu-joko bereziekin osaturiko aurrealdea.

*Zarranz presentó una propuesta valiente a los responsables del club: una piscina, dos frontones y una pista de tenis, además del edificio social, que da carácter especial al conjunto de las instalaciones. Se encontraba frente a la entrada, en un extremo de la piscina. Tiene dos pequeños cuerpos a cada lado, formando un porche. En la planta superior sobresalen varios cuerpos, formando un interesante juego de forjados y volúmenes.*



78

79



63

80


# 1933 Iruñeko Udal Aurrezki Kutxarentzako egoitza

## *Sede de la Caja Municipal de Pamplona*

### **Iruñea-Pamplona. J. Zarranz**

Eraikina Sarasate pasealekuak eta García Castañón kaleak egiten duten kantoian kokatzen da. Barne-antolaketa bi beso diagonalen arabera da. Behe solairuan Udal Aurrezki Kutxako bulegoak daude; goikoetan, berriz, bizitzak; bina solairuko. Bebarua eraikinaren izkinan kokatzen da. Etxearen aurrealdea da bereziki deigarria. Fatxada lerrotik hegalean aurreraturiko zerrenda luzeek forma kurboa hartzen dute etxearen izkinara iritsita.

*El edificio se encuentra en la esquina del Paseo Sarasate con la calle García Castañón. Su organización se basa en dos brazos diagonales. En la planta baja se encuentran las dependencias de la Caja Municipal de Pamplona, mientras que el portal se sitúa en el chaflán. La fachada de la casa es imponente. Llamen la atención los alargados cuerpos de ventanas que adoptan una forma curva al llegar a la esquina de la casa.*



# 1933 Iruñeko herriarentzako etxe-merke blokea

## *Bloque de casas baratas para el pueblo de Pamplona*

Iruñea-Pamplona. J. Zarranz, J. Madariaga

Babesturiko etxebizitza blokea da, Navarro Villoslada eta Paulino Caballero kaleek osaturiko iskinan kokatzen dena, Iruñeko Bigarren Zabalgunean. Bost solairu hartzen ditu, eta bizitzak alderik-alde paratzen, eskaikera-kutxaren albo banatan. Etxe-irlaren erdia hartzekoa bazen ere, azkenean izkin bat besterik ez zuen hartu. Interesgarria da bolumen-jokoak direla eta, eta baita balkoiek eta begiratokiek osaturiko gorputzengatik.

*Se trata de un bloque de vivienda subvencionada, ubicado en la esquina entre las calles Navarro Villoslada y Paulino Caballero, en el Segundo Ensanche de Pamplona. Cuentan con 5 alturas y viviendas pasantes a ambos lados del cuerpo de escaleras. Si bien iba a ocupar la mitad de la manzana, finalmente se edificaría la mitad. Muestra un interesante juego de volúmenes, así como cuerpos de balcones que incorporan un mirador.*





# 1934 Correos-eko umezurtzentzako eskola

## Escuela para los huérfanos de Correos


Madrid. J.M. Aizpúrua, E. Lagarde

Madrilgo Hiri Unibertsitarioan zen kokatzekoa. Bi atal paralelepipedo garbi eta erabatekoekin osaturiko eraikin multzoa zen. Eraikin nagusiek, zeinak bost eta sei solairu baitzituzten eta ikasgelak eta erresidentzia hartzen baitzituzten, L baten arabera artikulatzen dira eta galeria batek lotzen ditu. Behe solairuan atxikitzen zaizkie auditorioa eta irakasleen egoitzak, eta patio moduko bat egiten du erdian.

*Se habría de ubicar en la Ciudad Universitaria de Madrid. Se trata de un conjunto de dos volúmenes prismáticos y rotundos. Los edificios, de cinco y seis plantas, ocupados por las aulas y la residencia, se articulan en forma de L, y quedan unidos por una galería. En la planta baja se les adosa el auditorio y la residencia de profesores, los cuales dan forma a un patio central.*



84



# 1934 Itxekiriko bi txalet, Ondarretan

## *Dos chalets adosados en Ondarreta*

Donostia-San Sebastián. E. Lagarde

Infante Don Jaime kaleko 3. eta 5.ean ezarritako etxe bikoitza da; Lagarderentzat bat, Carmen Beinerentzat bestea. Villa Emilia jarri zion izena, 1919an hil zitzaion emaztearen oroipenean -Emilia Caruncho-. Etxe gotorra, zuria eta balkoi kurbatuak darabiltzana. Lagardek berak diseinatu zituen etxeako altzari guztiak: mahaiak, liburutegiak, aresak eta apalategiak; lerro zuzenekoak denak, eta zurezkoak, barne-giroari goxotasuna emateko.


*Consiste en una casa doble ubicada en los números 3 y 5 de la calle Infante Don Jaime; una para el propio Lagarde, otra para Carmen Beiner. La llamó 'Villa Emilia', en recuerdo de su esposa, Emilia Caruncho, fallecida en 1919. Es una casa imponente, blanca y con balcones curvos. Fue Eduardo Lagarde quien diseñó todos los muebles de la casa: mesas, bibliotecas, aparadores y estanterías; todos de líneas rectas y en madera, para hacer más cálido el ambiente interior.*



86



87



67

88



# 1934 Etxebizitza blokea Fernández del Campo kalean

## *Edificio de viviendas en la calle Fernández del Campo*

### **Bilbo-Bilbao. T. Bilbao**

Bilboko zabalgunean kokatzen da Tomás Bilbaoren eraikin gotor hau. Bi etxebizitza solairuko, zein bere patioarekin, eta geruzaka antolaturiko aurrealdearekin; behe solairua, bulegoentzako tarte-solairu bat eta bost solairu gehiago. Aurrealdean, nabarmen, hormigoizko hainbat elementu: begiratoki poligonalak eta bosgarren solairuko balkoia. Gainerakoa, agerikoa adreiluz itxia.

*Tomás Bilbao proyectó un robusto edificio entre medianeras, con dos viviendas por planta con una fachada estratificada: planta baja, una entreplanta para oficinas y cinco plantas de viviendas. La fachada está compuesta por elementos de hormigón, como los miradores poligonales y el balcón de la quinta planta, y lienzos de ladrillo caravista.*




# 1934 Irungo merkatua

## Mercado de Abastos de Irun


Irun. Luis Vallet

Agudo altxatzeko moduko eraikina proposatu zuen Valletek, funtzional erabat, eta fabrika-arkitekturaren zenbait ezaugarri ageri zituen. Oin laukizuzena zuen, 60 bat metro luze eta 24 bat metro zabal. Hormigoi armatzuko egitura 14 habeartek osatzen zuten. Eraikinaren zatirik handiena elikagai-azokak beteko zuen, mendebaldeko muturrean; soto-erdian, berriz, biltegia, eta atzeko fatxadari atxikita, igogailuak eta komunak.


Vallet ideó un edificio que pudiera construirse en un corto plazo, funcional y con características propias de la arquitectura fabril. Tenía una planta rectangular de 60 metros de largo y 24 de ancho, con una estructura porticada en hormigón armado de 14 crujeas. La mayor parte del edificio estaría ocupado por el mercado de alimentos, en el extremo oeste, mientras que en el semisótano se ubicaría el almacén.



92



93



94


# 1935 Etxebizitza blokearentzako proiektua, Lasala plazan

## *Proyecto para un bloque residencial en Plaza Lasala*


Donostia-San Sebastián. J.M. Aizpúrua

Lasala plazan aurkitzen da, Donostiako Alde Zaharrean, Aizpuruak 1935ean proiektatutako etxebizitza eraikina. Portuari begira dauden eraikinetan, hau da aurrealde handiena ageri duen etxea. Bere lehen bertsioak tankera eta konposizio erabat arrazionalistak ageri bazituen ere, azkenean arrazionalistatik batere ez zuten bestelako elementuekin behar izan zuen konposatu.


*En la plaza Lasala, en la Parte Vieja de Donostia, se encuentra el edificio de viviendas proyectado por Aizpuru en 1935. Se trata del edificio más voluminoso de los que conforman el frente de la parte vieja de la ciudad con respecto al puerto. Si bien su primera versión adopta el lenguaje y los criterios organizativos del racionalismo, finalmente se vio obligado a incorporar una serie de elementos por completo ajenos a dicho lenguaje.*



95



96



97


# 1935 Amarako zabalgunearantzako lehiaketarako proposamena

## *Propuesta para el concurso de ensanche de Amara*


Donostia-San Sebastián. J.M. Aizpúrua

Aizpuruak eguzkiari etekin handiena ateratzeko moduko trazatua marraztu zuen. Hiribide nagusi batek egiten zuen antolamenduaren ardatzarena, bi zatitan egin ere: lehen zati bat Kortazar Zabalgunearen luzapen gisa Ipar-hego norabidean, eta bigarren zati bat 30 gradu Hego-ekialderantz biratua. Etorbide inguruko etxadi gehienak irla ireki gisa ebatzi zituen. Gio Pontik eta Marcello Piacentinik Erromako Hiri Unibertsitarioan egin zuten bezala, hiribide nagusiarekiko zeharka zabalduriko bigarren kale bat marraztu zuen Aizpuruak, gurutzea osatuz.

*Aizpúrua dibujó un trazado con el cual obtener el mayor aprovechamiento del sol. Dispuso una avenida principal como eje vertebrador, en dos tramos: el primero de ellos en continuidad con el Ensanche Cortázar en dirección Norte-sur, y un segundo tramo virado 30 grados en dirección Sur-este. La mayoría de los edificios en torno a estos ejes fueron diseñados como manzanas abiertas. Al igual que hicieron Gio Ponti y Marcello Piacentini en la Ciudad Universitaria de Roma, Aizpúrua dispuso una segunda avenida transversal a la avenida principal, formalizando una cruz.*



99










# 1935 Bigarren Hezkuntzako Institutua *Instituto de Segunda Enseñanza*

Cartagena. J.M. Aizpúrua, E. Aguinaga


Arkitektoek, espazioak elkarrekin pilatuta baino, oin ireki baten arabera antolatu zuten eraikina. Orubearen ertzetan ezarritako L formako multzoa da. L-aren prisma nagusia, ordea, han-hemenka aldatua da, dela apur bat irteten diren gorputz kurboekin (Melnikov-en Klub Rusakov dakarte gogora), dela hitzaldi-aretoaren solairu bolumen askearekin, maisuki baitago itxekia gorputz prisma nagusiari.

*Los arquitectos abogaban por una planta abierta y no concentrada. Se trata de un conjunto en L adosado a los bordes del solar. El prisma básico de la L aparece alterado aquí y allá, sea por los cuerpos curvos de las aulas ligeramente salientes hacia el espacio (que recuerdan al Club Rusakov, de Melnikov), o por el volumen exento de una sola planta de la sala de conferencias, la cual está magistralmente adosada al cuerpo largo.*

101 103



102 73 105




# 1935 Mendi-Ingeniarietzako Eskola *Escuela de Ingenieros de Montes*



Madrid. J.M. Aizpúrua, E. Aguinaga

Aizpuruak eta haren lehengusu Eugenio Aguinagak egindako proiektua da. Hiru atal luzek osaturiko eraikina da. Proiektu organizista da, funtsean, barne-funtzionamenduaren arabera atalek osatua baita: laborategia, gelak, mintegiak eta hitzaldi aretoa; erabilera nolakoa, mota bateko edo besteko gorputz eta bolumena eman zieten.


*Proyecto realizado por Aizpúrua y su primo Eugenio Aguinaga. El proyecto se resuelve con tres cuerpos longitudinales. Es un proyecto organicista, puesto que se compone de una serie de cuerpos que responden a los usos previstos en el edificio: laboratorios, aulas, auditorio; cuerpos que en función del uso, adoptan una forma u otra.*



106



107



74

108


# 1935 Alokatzeko etxebizitzako Hondarribiko Puntalean

## Grupo de viviendas de alquiler en el Puntal de Hondarribia

Hondarribia. J.M. Aizpúrua, E. Lagarde

Aizpuruak eta Eduardo Lagardek lursaila erosi zuten Hondarribiko puntalean, senitartekoen laguntzarekin alokatzeko apartamentuak eraikitzeko bertan. Programak udaldirako 8 apartamentu hartzen zituen. Oinplano errektangularra hartzen du etxeak, eskailera gunea erdian duela. Bi isurialdeko teilatu zorrotzak nortasun handia ematen dio etxeari, are gehiago teilatuan zabalduriko mantsardek. Itxiturari tonu gorritzat eman zioten, kolore erromatar eta latinoak, inondik ere.


José Manuel Aizpúrua y Eduardo Lagarde adquirieron una parcela en el Puntal de Hondarribia, para edificar en ella, con financiación familiar, un bloque de apartamentos de alquiler. El programa preveía la construcción de 8 apartamentos de verano. La casa adopta una planta longitudinal, dividida en dos por el cuerpo de escaleras. Llama la atención su cubierta a dos aguas, acentuada más aún por la apertura de una serie de mansardas. La fachada fue pintada en tonos rojizos, tan latinos como romanos.



109



110




# 1935 Landako etxea Ondarretako Juan Infantearen kalean *Casa de campo en la calle del Infante Juan, Ondarreta*

Donostia-San Sebastián. J.M. Muñoz Baroja

Lagardek egindako Villa Emilia etxetik hurbil dago etxea. Satrustegi Baroiaren etxeari atxikita. Hiru fatxada ditu, etxe-ilara batean muturrean egoki. Taxu arrazionalistako etxetxoa da, bi solairukoa. Teilatua oharkabean igarotzeko moduko malda apalekoa, eta aurrealdeari erremate zuzena emanaz hegal nabarmena. Leihoek taxu arrazionalista ageri dute, direla proportzioak, direla leiho-barrenak; idi-begiek bereziki.

*Se encuentra cerca de Villa Emilia, construida por Lagarde. Cuenta con tres fachadas, puesto que se adosa al extremo de una hilera de casas. Es una casita de dos plantas, en estilo racionalista. El tejado es de una pendiente mínima, por lo que pasa desapercibido, y la fachada queda coronada por un prominente alero en hormigón armado. Las ventanas responden al repertorio racionalista, ya sea por sus proporciones o sus cercos; especialmente los ojos de buey.*




# 1935 *La Normandie etxea* *Casa La Normandie*



Irun. J.J. Olazábal

Apirilaren 14ko etorbidearen muturrean kokatzen da, Colón pasealekutik gertu. Lursailak bazuen bere atzeko etxera iristeko zorbide bat iparraldeko muturrean, eta ondorioz, ez zuen alboko eraikinetako bati atxikitzerik izan. Olazabalek bere alde baliatu zuen pasabide hura bere horretan utzi behar izana. Halaxe eman zion, etxearen iparraldeko mutur exentuari, forma kurbatu erabat adierazkorra, etxearen ezaugarri bereizgarriena.

*Se sitúa en el extremo de la avenida del 14 de Abril, cerca del Paseo de Colón. La parcela contaba en su extremo norte con una servidumbre de paso a la casa trasera, lo que impidió a Olazbal adosarse al edificio adyacente. Olazabal sacó partido de dicha obligación, dejando exento el extremo norte de la casa, al que dio una expresiva forma curvada, el rasgo más característico de la casa.*



115



116



# 1935 Bigarren Hezkuntzako Institutua *Instituto de Segunda Enseñanza*

Irun. J.J. Olazábal, L. Vallet, J. Labayen, J.A. Ponce.

Bi solairuko ikastetxea zen. Ikasgelak, 7,8 metroko luze, argiztapen naturalari etekinik handiena ateratzeko. Luzetarako eraikina zen, Sortalde-sortalde norabidean paratua. Behe solairuko gelek portiko ireki bat zuten hegoaldera eta korridore bat iparraldean; ekialdeko muturrean, T modukoa eginez, bulegoak eta ikasgela handi bat; mendebaldean kirol gunea: gimnasioa, frontoia, dutxak eta aldagelak.

*El instituto tenía dos plantas. Las aulas tenían 7,8 metros de fondo, con el fin de sacar el máximo partido a la iluminación natural. Era un edificio longitudinal dispuesto en dirección Este-Oeste. Las aulas de la planta baja tenían un pórtico abierto al Sur y un pasillo al Norte; en el extremo Este, en forma de T, el cuerpo de oficinas y una gran sala de estudio; al Oeste, la zona deportiva: gimnasio, frontón, duchas y vestuarios.*

117



# 1935 Alfonso Morales kaleko etxebizitza-blokea





## Bloque residencial en calle Alfonso Morales

Irun. J.A. Ponte

Apirilaren 14ko etorbideko bigarren karrikaburuan kokatuko zen etxea. Alboko altxaera emango zion etorbideari, eta nagusia, berriz, Alfonso Morales kaleari. Lau solairuko etxea da, bina bizitza solairuko. Patioak maisuki ezarriak daude: patio nagusi bat eskailerak, sukaldeak eta bainugelak aireztatzeko, eta patio txiki bana komunetarako. Aurrealdeari konposizio aratza eman zion Pontek: leihoen eta balkoiek aurrealdeari emandako taxu horizontalarekin kontraste eginez, goitik beherako begiratokiak.

*La casa se encuentra en la segunda calle transversal a la Avenida 14 de abril. Su alzado lateral se alinea con la avenida, y el principal con la calle Alfonso Morales. Es una casa de cuatro pisos y dos viviendas por planta. Cuenta con un patio principal para ventilar escaleras, cocinas y baños, y sendos patios menores para los baños. Ponte compuso un alzado sobrio y limpio, disponiendo dos cuerpos de miradores, en contraste con la marcada horizontalidad de las ventanas y los balcones.*

119



120

121


# 1935 Sedi bakarrarentzako etxea Donostia-Irun errepidean

## Vivienda unifamiliar en la carretera Irun-San Sebastián

Irun. J.A. Ponte

Doi-doi jo liteke etxetxea GATEPACeko Ipar Taldeko proiektuztat, oso herabetiak dira eta ageri dituen ezaugarri arrazionalistak. Bi isurialdeko teilatua, aurrealde aratza eta ordenatua, aurrealdeko teilatupeko atala izan ezik, zeina ageriko adreiluarekin baitago itxita.

*Admítase la inclusión de esta casita en el conjunto de trabajos del Grupo Norte del GATEPAC, a pesar de que, evidentemente, sus rasgos atribuibles al lenguaje racionalista sean escasos. Subrayemos su limpieza compositiva, el orden de sus elementos y las fachadas limpias, con el paño en ladrillo caravista bajo la cubierta, en su fachada principal.*



# 1935 Bilboko Errekalde Zumarkaleko etxea


## *Bloque residencial en la Alameda Recalde*

### Bilbo-Bilbao. T. Bilbao


Etxeak bina etxebizitza du solairuko. Nabarmena da, etxebizitzaren barne-antolaketari erreparatuta, zerbitzuko langileen eta etxearen zirkulazioen arteko banaketa. Kanpotik, kurba eta lerro itxurako forma xumeak darabiltza, eraikinaren bolumena nabarmentzeko xedez-edo. Izkinetako etxea izanik, forma kurbatua erabili zuen Tomás Bilbao bere muturrean. Deigarriak dira atal kurbatuko leiho luze eta urratuak, etengabeak itxuraz, nahiz leiho-atal bat, persiana batez itxitakoa dirudiena, zutabe bat estaltzeko asmaturikoa izan (zer da arkitektura, ez bada artifizioa?).

*El bloque consta de dos viviendas por planta. La separación de circulaciones entre familia y servicio es patente en toda la distribución. En el exterior emplea formas sencillas basadas en la curva o en la línea para enfatizar algunos aspectos del edificio. En este caso la curva de la fachada se utiliza adecuadamente para resolver el chaflán típico del solar en esquina. Es de reseñar la ventana rasgada, si bien uno de los elementos consiste en el trasdosado de un paño ciego con una falsa persiana.*

125



124



# 1935 Porcelanas Bidasoa-rentzako fabrika


## Fábrica para Porcelanas Bidasoa

Irun. L. Vallet

Jarduera industrialia izango zuen fabrika arrunt bat izanagatik, garrantzitsua zela haren itxura zaintzea, portzelana-industria batek izaera artistikoa baitu. Luzetarako eraikin handi bat asmatu zuen, hiru nabe zituen bere baitan. Alboetako bi nabeen altxaerek, material ezberdinen erabilera tarteko, estratifikazio bati jarraitzen zioten: teilatu azpiak bernizaturiko oholezko akabera ageri zuen; bigarren solairuak zarpio zuria; behekoak harlangaitza.

*Vallet consideraba importante cuidar el aspecto exterior de la fábrica, dado que una industria de porcelana no deja de tener un carácter artístico. Ideó un gran edificio con tres naves en su interior. Los alzados laterales presentan una marcada estratificación, basada en el uso de distintos materiales: un acabado de tablas barnizadas para el bajocubierta; un enfoscado blanco para la primera planta y una mampostería de piedra caliza para la planta baja.*

127



128

# 1936 AYA lantegia, Vista Eder kalean



## Fábrica AYA, en calle Vista Eder

Eibar. R. Alberdi

1915ean sortu zuten Miguel Agirre eta Nicolás Aranzabal eibartarrek AYA, Bartzelonako Eduardo Schilling armagile alemanarenean ikasi ostean. Eibarko beste lantegi batzuentzat piezak egiteko lantegi txiki bat zen. 1938an, besteentzako piezak baino, arma osoak ekoiztea hartu zuten erabaki, eta Bista Eder kalean fabrika berri bat egiteko proiektua eskatu zioten Raimundo Alberdiri.

*La fábrica AYA fue fundado en 1915 por los eibarreses Miguel Agirre y Nicolás Aranzabal, quienes estudiaron con el armero alemán Eduardo Schilling, en Barcelona. Era una pequeña factoría que producía piezas para otras fábricas. En 1938 decidieron fabricar armas completas y encargaron a Raimundo Alberdi el proyecto de una nueva fábrica en la calle Bista Eder.*

131



130



132


# 1936 Bizitza-blokea Buenos Aires kaleko 6.ean

## *Bloque residencial en el nº 6 de la calle Buenos Aires*

**Bilbo-Bilbao. J. Madariaga**

Madariagak gerra aurretik egindako azken proiektua da. Buenos Aires kalean zegoen, Plaza biribilaren eta Udaletxearen zubiaren artean. Hormigoizkoa eta ageriko adreiluzko aurrealdearekin. Zazpi solairuko blokea zen. Eredu-oinaren antolaketa bikaina da. Bina bizitza ditu solairuko; elementu guztietan, barneko patioa egiten da interesgarrien. Berak jasotzen ditu barneko gela guztiak, patio poligonal berezia osatuta. Etxea aspaldi eraitsi zuten.

*Es el último proyecto de Madariaga, realizado con anterioridad a la guerra. Se encuentra en la calle Buenos Aires, entre la Plaza circular y el puente del Ayuntamiento. Era un edificio en hormigón armado, con una fachada en ladrillo caravista. Era un bloque de siete plantas, con una planta tipo ejemplar: dos viviendas por rellano, y en su parte central, un patio de planta poligonal, que garantiza la luz y la ventilación de la escalera y de todas las habitaciones interiores. La casa fue demolida en su día.*




# 1936 Bi etxebizitza-bloke Areilza Doktorearen kalean

## *Dos bloques residenciales en la calle Doctor Areilza*

**Bilbo-Bilbao. J. Madariaga**

Madariagak gerra aurretik eta erbestera partitu baino lehen egindako azken lana da. Bi etxe dira, Bilboko zabalguneko Areilza Doktorearen kalean, Poza Lizentziatuaren kalearen alde banatan izkina egiten. Adreilu gorriarekin eta hormigoizko egitura elementuekin konposatuak dira biak, taxu moderno eta dotorean. Deigarriak dira bere begiraleku eta leihoburuak. José María Sainz Agirre arkitektoa arduratuko zen haren eraikuntzaz, 1940an lanak amaituta.

*Se trata del último trabajo llevado a cabo por Madariaga con anterioridad a la guerra y a marcharse al exilio. Se compone de dos casas casi idénticas, en las calle del Doctor Areilza, a ambos lados de la calle Licenciado Poza, dispuestas en esquina. Es característica su fachada en ladrillo caravista, así como la presencia de la estructura de hormigón, como en los miradores y en los dinteles curvos. Fue José María Sainz Aguirre quien se encargó de la dirección de los trabajos, finalizados en 1940.*



# 1936 Bi etxe Licenciado Poza kaleko 5. Eta 7.ean

## *Dos casas en calle Licenciado Poza, 5-7*

**Bilbo-Bilbao. T. Bilbao, A. Amann**

Bi etxe dira. Bina bizitza solairuko. Kalearen estuak are luzeagoa egiten du aurrealdea, zeina bi planorekin antolatu baitzuen Tomás Bilbaok: bata, ageriko adreiluzkoa, kalearekin lerrokatzen da; bestea, atze-oihal gorritzat hartatik bereizita bezala, zeramikazko xaflaz estaliriko gorputz erantsia da, bolumen-joko bizi bat osatzen duena, dela begiratoki kurbatuekin, dela balkoi luzeekin. Aurrealdea simetrikoa bada ere, barneko antolaketa ez dio oin simetriko bati erantzuten, baizik eta atzeko patio estuarekin bat egiten duen L moduko oin bati.

*Son dos casas con dos viviendas por rellano. Tomás Bilbao organizó su fachada en dos planos: uno de ladrillo visto, alineado con la calle; el otro, sobresaliendo del paño de ladrillo, es un cuerpo añadido cubierto con plaqueta cerámica, en forma de miradores curvos y largos balcones. Aunque la parte delantera es simétrica, la disposición interior del edificio no responde a tal simetría, sino a una planta en L. Álvaro Amann se encargó de la dirección de obra.*



# 1936 Etxebizitza blokea Nafarroa Beherako etorbideko 30-32.ean



## *Bloque de pisos en la Avenida de la Baja Navarra 30-32*

Iruñea-Pamplona. J. Zarranz, V. Oteiza


Lau solairuko etxea egin zuen Zarranzek, Victor Oteizarekin batera, hiruki formako lursail estu batean. Etxeak Streamline Moderne estiloaren oihartzuna dakar nolabait ere: forma kurbatuak eta lerro horizontal luzeak. Behe solairuko itxitura kalearen lerrokadurari errenditzen zaio. Goiko solairuak, berriz, hegalean dira, branka biribil baten tankera hartuta eta azpialdea kasetoiekin apaindua duen aterpea eginez. Eredu oina bi eskailerarekin eta hiruna bizitzarekin antolatzen da. Oteiza arduratu zen etxearen eraikuntza-lanak zuzentzeaz, Zarranzek ez baitzuen posible izan.

*Zarranz proyectó una casa de cuatro plantas en un solar de forma triangular, junto con Victor Oteiza. La casa presenta reminiscencias Streamline Moderne: formas curvas y líneas horizontales. La planta baja queda alineada con la calle, mientras que las superiores sobresalen en vuelo, formando una especie de proa, adornada en su parte inferior con una serie de casetones. La planta tipo alberga tres viviendas y una caja de escaleras. Zarranz no pudo hacerse cargo de su construcción.*

138



139



# 1937 44. etxe-irlako 5., 7. eta 8. lursailletarako bizitza-blokea



## *Bloque residencial en las parcelas 5, 7 y 8 de la manzana 44*

Iruñea-Pamplona. J. Zarranz

Joaquín Zarranz azken proiektua da, gerran hil baino hilabete zenbait lehenago egindakoa. Ez zuen eraikita ikusterik izan. Zabalguneko izkin bat hartzen du. Etxebizitzak duplex modukoak dira, eta altuera bikoitzeko egongelak badauzkate. Zortzi solairu hartzen ditu. Estalkia terraza lau bat da.

*Se trata del último proyecto de Joaquín Zarranz, finalizado pocos meses antes de que falleciera en la guerra. El bloque se ubica en una esquina del Ensanche de Pamplona. Las viviendas son de tipo dúplex, y cuentan con salas de estar de doble altura. Cuenta con 8 plantas, y está rematado con una cubierta plana.*

141




# 1938 Tailer mekanikoa Ubitxan

## Taller mecánico en Ubitxa

Eibar. R. Alberdi

Hormigoi armatuzko egitura portikatu garbi eta erabat erregularrarekin altxaturiko pabiloia da. Lan-gune nagusiak, L moduko oina hartzen du; bertan jarriko zituzten makinak. Atzetik itxekita, berriz, zerbitzuak eta aldagelak. Eraikuntza xumea ageri du: harrizko zokalo sendo bat, beirazko panelekin egindako beirate zabalak, eta egitura portikatuaren gainetik, erlaitz bat.

Se trata de un taller levantado con una estructura en hormigón armado, porticada y regular. La zona de talleres adopta una forma en L, donde se instalarían las máquinas. Por su parte posterior, se le adosa un cuerpo de servivios. La construcción, de una única altura, es sencilla: un zócalo de piedra, amplios ventanales con bloques de vidrio, y una puerta de amplias hojas para la entrada y salida de vehículos.




# 1938 Torlojuak egiteko tailer mekanikoa Matsarian

## Taller de tornillería mecánica en Matsaria

Eibar. R. Alberdi

Orube irregular baten gainean altxaturiko pabiloia da, solairu bakarrekoa. Pentagono irregularra osatzen du, punta bat ageri duelarik erpin batean. Hala ere, antolamendu erregularreko egitura batekin saiatu zen Alberdi. Portikoak eta lauza batekin ebatzitako egitra asmatu zuen. Estalkia, noski, laua da, ur geruza batekin babestutakoa, eta bere aurrealdean, altzeiruzko arotzeriekin egindako lehiate zabalak, eta idi-begiren bat.

Se trata de un pequeño pabellón levantado sobre una parcela de forma en forma de pentágono irregular, con una punta en uno de sus vértices. No obstante, Alberdi trató de dar solución al edificio mediante una estructura de hormigón armado, con pórticos de luces regulares y losas macizas. La cubierta consiste en una cubierta plana, protegida con agua. Las fachadas fueron resueltas con ventanales de hojas de acero, y con algún ojo de buey.



# 1938 La Palmera lantegia


## Fábrica La Palmera

Irun. J.A. Ponte


Juan Vollmer ingeniariak egin zion enkargua Ponteri, 1937an, fabrikaren proiektua egiteko. Lantegia erabat arrazionalista ez izanagatik, kutsu modernoa darie elementu gehienei. Eraikinak t modukoa egiten zuen. Ekoizpenerako nabeak hartzen zuen beso luzeena, errepidearekiko zeharka jarrita. Bi isurialdeko pabiloi luzea zen. Harekiko zeharka jarrita, zerbitzuak. Atal honen aurrealdea osatzeko, leihate zabalak eta idi-begiak, eta zurezko oholekin egindako horma-atal baten gainean, La Palmera idazkuna, hizki-tipo tropikalarekin.

*Fue el ingeniero Juan Vollmer quien encargó a Ponte, en 1937, el proyecto de la fábrica. Aunque no se trate de una obra totalmente racionalista, la mayoría de sus elementos denotan un tono moderno. El edificio adopta en planta la forma de una T. La nave de producción ocupaba el brazo más largo, colocándose oblicuamente con respecto a la carretera. Era un pabellón a dos aguas. De forma transversal a ella se alojaban los servicios. La parte delantera de este cuerpo se completa con una serie de amplios ventanales y ojos de buey, y sobre un paño de tablas de madera, luce la inscripción La Palmera, en tipografía tropical.*

146



145



147

# Proiektuen zerrenda

## *Lista de proyectos*

### **José Manuel Aizpúrua**

1935 - Propuesta ensanche Amara (Donostia – San Sebastián)

### **José Manuel Aizpúrua, Eugenio Aguinaga**

1935 - Instituto de Segunda Enseñanza (Cartagena)

### **José Manuel Aizpúrua, Joaquín Labayen**

1930 - Cafetería Sacha (Donostia – San Sebastián)

1931 - Casa para el pintor Olasagasti (Hondarribia)

1932 - Propuesta concurso viviendas Solokoetxe (Bilbo – Bilbao)

1932 - Proyecto de piscina en Ondarreta (Donostia)

1932 - Grupo Escolar en San Francisco (Bilbao)

1932 - Centro de Atracción y Turismo (Donostia)

1933 - Concurso Museo Arte Moderno (Madrid)

1935 - Escuela de Ingenieros de Montes (Madrid)

1935 - Bloque residencial en Plaza Lasala (Donostia – San Sebastián)

### **José Manuel Aizpúrua, Eduardo Lagarde**

1934 - Hogar para huérfanos de Correos (Madrid)

1935 - Grupo de viviendas de alquiler en el Puntal (Hondarribia)

### **José Manuel Aizpúrua, Joaquín Labayen, Eduardo Lagarde, Manuel Sánchez-Arcas**

1933 - Anteproyecto para nuevo Hospital de Donostia (Donostia – San Sebastián)

### **Raimundo Alberdi**

1936 - Fábrica Aguirre y Aranzábal (Eibar)

1938 - Taller mecánico Calle Elgueta (Ubitxa, Eibar)

1938 - Taller tornillería mecánica en Macharia (Eibar)

### **Tomás Bilbao**

1931 - Casa para Cesáreo Aguirre, en c/ Ripa, 6 (Bilbo – Bilbao)

1933 - Casa doble y otra sencilla en c/ Henao, 15 (Bilbo – Bilbao)

1933 - Casas Alameda Urquijo, 58, 60, 62, 64 (Bilbo – Bilbao)

1934 - Edificio de vivienda en c/ Fernández Campo (Bilbo – Bilbao)

1935 - Casa doble en Alameda Recalde, 7 (Bilbo – Bilbao)

1936 - Dos casas en calle Licenciado Poza, 5-7 (Bilbo – Bilbao)

### **Joaquín Lagarde**

1932 - Dos villas adosadas en c/ Don Jaime, 1 (Donostia – San Sebastián)

1932 - Casa en Ulia (Donostia – San Sebastián)

1934 - Dos casas adosadas en c/ Don Jaime, 3-5 (Donostia – San Sebastián)

**Juan Madariaga**

- 1933 - Bloque residencial en c/ J.B. Zabala (Algorta)
- 1934 - Oficinas S.A. Hidroeléctrica Ibérica en c/ Gardoqui 8 (Bilbo – Bilbao)
- 1936 - 2 Casas Alameda Doctor Areilza y Licenciado Poza (Bilbo – Bilbao)
- 1936 - Casa Doble de Vecindad C Buenos Aires n 6 (Bilbo – Bilbao)

**Juan Madariaga, Luis Vallejo**

- 1932 - Propuesta concurso viviendas Solokoetxe (Bilbo – Bilbao)

**Juan Madariaga, Joaquín Zarranz**

- 1932 - Grupo Escolar San Francisco (Bilbo – Bilbao)
- 1934 - Casas baratas en calles Villoslada y Caballero (Iruñea – Pamplona)

**José María Muñoz Baroja**

- 1935 - Casa de campo en Ondarreta (Donostia – San Sebastián)

**Juan José Olazábal**

- 1933 - Bloque residencial en c/ General Castaños (Portugalete)
- 1935 - Bloque residencial en Avenida 14 de Abril (Irun)

**Juan José Olazabal, Josep Soteras i Mauri**

- 1931 - Propuesta concurso viviendas Solokoetxe (Bilbo – Bilbao)

**Juan José Olazábal, Luis Vallet de Montano, Joaquín Labayen, José Antonio Ponte**

- 1935 - Instituto de Segunda Enseñanza en Lapice (Irun)

**José Antonio Ponte**

- 1935 - Construcción de casa en c/ Alfonso Morales (Irun)
- 1935 - Casa unifamiliar en carretera Irun-San Sebastián (Irun)
- 1938 - La Palmera (Irun)

**Luis Vallejo**

- 1930 - Vivienda para alumnos internos del SHCB (Bilbo – Bilbao)
- 1931 - Edificio de la S.S.L. (Bilbo – Bilbao)
- 1932 - Ikastola en Errotatxueta (Bilbo – Bilbao)
- 1933 - Escuela Elemental del Trabajo (Ávila)

**Luis Vallet de Montano**

- 1930 - Chalet para el Doctor Anguera (Irun)
- 1931 - Bloque viviendas en c/ Francisco de Gainza (Irun)
- 1932 - Pabellón de Baños y Lavadero Municipal (Irun)
- 1932 - Fábrica Recondo (Irun)
- 1933 - Vivienda en Son Armadans para López Becerra (Mallorca)
- 1933 - Pabellón recaudación arbitrios (Irun)
- 1933 - Casa para José Fuertes, Avenida 14 de Abril (Irun)
- 1934 - Nueva plaza de Abastos en c/ 33 (Irun)
- 1935 - Fábrica Porcelanas Bidasoa (Irun)

**Joaquín Zarranz**

1934 - Bloque de pisos en calle Tudela, 13 (Iruñea – Pamplona)

1933 - Viviendas-sede Caja Ahorros Municipal (Iruñea – Pamplona)

1933 - Club Deportivo Larraina (Iruñea – Pamplona)

1937 - Proyecto solares 5-7 y 8 de la manzana 44 (Iruñea – Pamplona)

**Joaquín Zarranz, Víctor Oteiza**

1936 - Bloque viviendas Av. Baja Navarra 30-32 (Iruñea – Pamplona)

## **Irudien egileak eta jatorria**

### ***Fuente y autoría de las figuras***

1, 2, 20, 21, 22, 26, 98, 104, 105, 106, 107, 108, 110: Nueva Forma (40)

3, 4, 5: AC Documentos de Actividad Contemporánea (1)

6, 13, 27, 51, 61, 63, 65, 68, 69, 82, 83, 87, 90, 113, 114, 126, 132, 136, 140: Lauren Etxepare

7, 8, 42, 43, 45, 46, 47, 48, 71, 73, 92, 93, 94, 115, 116, 119, 120, 121, 122, 123, 127, 128, 129, 145, 146, 147: Irungo Udal Artxiboa/Archivo Municipal de Irun

9: AC Documentos de Actividad Contemporánea (6)

10, 11, 12, 64, 66, 67, 89, 90, 124, 125, 133, 134, 135: Bilboko Udal Artxiboa/Archivo Municipal de Bilbao

14, 15, 16, 17: AC Documentos de Actividad Contemporánea (4)

18, 19: Cortijos y Rascacielos (13)

23, 36, 37: Arquitectura (170)

24, 25, 34, 35, 38, 39: AC Documentos de Actividad Contemporánea (11); Arquitectura (159)

28, 29, 30, 31, 32, 33, 86, 88, 95, 96, 97, 99, 100, 112: Donostiako Udal Artxiboa/Archivo Municipal de San Sebastián

40, 41: Euzko Ikastola Batza - Federación de Escuelas Vascas, Informe de la gestión del primer ejercicio, Talleres Gráficos de E. Verdes Achirica (Bilbao), 1933.

44, 72: Aitor Izaguirre

50, 78, 80, 139, 138, 141, 142: Iruñeko Udal Artxiboa-Archivo Municipal de Pamplona

52, 53, 54: AC Documentos de Actividad Contemporánea (13)

55, 56, 57, 58: Arquitectura (177)

59, 60: Getxoko Udal Artxiboa/Archivo Municipal de Getxo

62: Portugaleteko Udal Artxibo Historikoa/Archivo Histórico Municipal de Portugalete

70: Nueva Forma (33)

84, 85: Arquitectura (2, 1935)

74, 130, 131, 144: Eibarko Udal Artxiboa – Archivo Municipal de Eibar

75: Idoia Lacasa

76, 77: Archivo Luis Vallet

79, 81: José Joaquín Arazuri (Fondo Arazuri, Iruñeko Udal Artxiboa-Archivo Municipal de Pamplona)

101, 102, 103, 117, 118: AC Documentos de Actividad Contemporánea (21)

109, 111: Hondarribiko Udal Artxiboa/Archivo Municipal de Hondarribia

137: Eneko Uranga

Harrigarria da GATEPACeko Ipar Taldeko arkitektoen proiektuen bilduma oraino egin ez izana. Hutsune historiografiko hori betetzeko helburuz eskatu zuen '20th Century Architecture. Technical and Cultural Studies' ikerketa-taldeak (GIU22/005, EHU/UPV) Ipar Taldeko arkitektoen proiektuen konpilazioa egiteko finantzaketa, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Zuzendaritzak eta EHuko Arkitektura Goi Eskola Teknikoak sinatutako hitzarmenaren baitan. Proiektuak biltzeko bi iturri mota kontsultatu ditugu: alde batetik, garaiko arkitektura aldizkariak: *AC Documentos de Actividad Contemporánea* (Bartzelona, 1930-1937), *Arquitectura* (Madril, 1918-1931; 1932-1936), *Propiedad y Construcción: revista mensual técnica información* (Bilbo, 1924-1936) eta *Cortijos y Rascacielos* (Madrid, 1931-1936). Halaber aztertu dugu *Nueva Forma: arquitectura, urbanismo, diseño, ambiente, arte* aldizkaria, nahiz geroagokoa izan (Madril, 1968-1975). Bestetik, Ipar Taldeko arkitektoek lan egin zuten lurraldeetako udal artxiboak arakatu ditugu: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako, eta Nafarroako udal artxiboak. Zenbat arkitektura-lan egozten ahal zaizkion GATEPACeko euskal taldeari? Hirurogei bat. Horietatik 35 bat eraiki ziren; gainerakoak, lehiaketetara aurkeztutako proposamenak dira, eraiki gabeak. Horiek osatzen dute GATEPACeko Ipar Taldearen emaitza. Bego bada, bere horretan, aintzat hartua eta gogoratua, beharra badu eta.

Es llamativo el hecho de que hasta el día de hoy no haya sido realizada la colección de proyectos del Grupo Norte del GATEPAC. Con el objetivo de completar este vacío historiográfico, el grupo de investigación "20th Century Architecture. Technical and Cultural Studies" (GIU22/005) solicitó financiación para realizar una compilación de proyectos del Grupo Norte, en el marco del convenio suscrito entre la Dirección de Vivienda del Gobierno Vasco y la Escuela Técnica Superior de Arquitectura de la UPV/EHU. Con tal fin han sido consultadas las principales revistas de arquitectura de la época: *AC Documentos de Actividad Contemporánea* (Barcelona, 1930-1937), *Arquitectura* (Madrid, 1918-1932-1936), *Propiedad y Construcción: revista mensual técnica información* (Bilbao, 1924-1936). También ha sido analizada la revista *Nueva Forma: arquitectura, urbanismo, diseño, ambiente, arte* (Madrid, 1968-1975). Por otro lado, han sido consultados los archivos municipales de los territorios de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra, de los cuales han sido obtenidos no pocos proyectos. ¿Cuántas obras arquitectónicas pueden atribuirse al Grupo Norte del GATEPAC? Unas sesenta, de las cuales 35 fueron edificadas; el resto son propuestas presentadas a concursos, no construidas. Este es el legado del Grupo Norte del GATEPAC que tenemos el gusto de presentar mediante esta compilación.

ISBN 978-84-09-57964-8



9 788409 579648

